




Ingurumen Jardunaldiak

Egitarau bete-betea prestatu du aurten ere Natur Eskolak



Begizta, Internet bidezko telebista plataforma jarri du abian ONAROK



Olakuako urmaela birmoldatzeko proiektua aurkeztu du udalak

INGURUMEN JARDUNALDIAK

heziketa et kontzientziazioa helburu Natur Eskolaren eskutik



Gure inguruan bizi diren txori txikiei buruzko erakusketa ikusgarria egongo da ikusgai kutur etxean

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren etorkizuna, Getariako hegialbur haztegiak, kaparren ziztaden arriskuak, eta itsas hondoetako ekosistemen garrantzia, aurtengo aztergaien artean

Euskal Herriko txoriak ezagutzeko **erakusketa** eta **irteera** bana ere egongo dira, **Zuhaitz eguna** eta **Zuhaitz ferixarekin** batera

Cartonajes Arregui, S.A.



- **Kartoi ondulatuaren fabrikazioa**
- **Enbase eta enbalajeen fabrikazioa**

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Otsailarekin batera Ingurumen Jardunaldiak antolatu ditu aurten ere Natur Eskolak, udalaren laguntzarekin. Ingurumenarekin lotutako heziketa eta kontzientziazioa zabaltzea da Natur Eskolak urtean zehar ikasleekin egiten duen lanaren xedea, eta ingurumen jardunaldien bidez lan hori herri osora hedatzea du helburu. Aurten ere egitarau bete-betea prestatu dute, puri-purian dauden gaien inguruan informatu eta gogoeta egiteko aukera emango diguna.

HITZALDIAK

Urdaibain Guggenheim museoa eraikitzeak izan lezakeen ondorioez, Getariako kostatik hurbil ipini dituzten hegialbur haztegiez, gure inguruan gero eta kezka handiagoa sortzen duten kaparren ziztaden arriskuez, eta ur ekosistemetan (itsasoan, ibaian edo aintziran) hondoari atxikita bizi diren organismoen garrantzia ekologikoaz informatu eta ikasteko aukera izango dugu.

ERAKUSKETA ETA BESTE

Gure inguruan bizi diren txori txikiak hobeto ezagutzeko erakusketa eta irteera bana ere antolatu dute. Gainera, ohi bezala, ingurumenarekin lotutako bi pelikula eder ikusteko aukera izango dugu (zine-klub saioan), eta Zuhaitz Eguna nahiz Zuhaitz Ferixia ere ez dira faltako. Herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

HITZALDIAK

kultur etxean, 19:00

Itsas ekosistema bentonikoa: funtsezko bioadierazlea!

- **EGUNA:** OTSAILAK 19, ASTEAZKENA
- **HIZLARIA:** Nahia Muguerza Latorre, EHUko irakaslea eta Itsas Bentos Ikerketa Taldeko kidea



Bentosa (hondoa, grekeraz) ur-ekosistemetan (itsasoan, ibaian edo aintziran) hondoari atxikiak eta hondoarekin harremanetan bizi diren organismoen (fauna eta flora) multzoa da eta rol ekologiko garrantzitsua betetzen du, besteak beste, funtsezko eginkizuna duelako uraren osasunaren kontserbazioan. Ildo horretan, EHUren baitan bada *Itsas Bentos* izeneko ikerketa taldea, urteak daramatzana giza-jarduerak substratu gogorreko itsas komunitate bentonikoetan duten efektu eta ondorioak aztertzen, eta bertako kide bat etorriko da Oñatira.

Kaparrak, ziztadatik haratago

- **EGUNA:** OTSAILAK 21, OSTIRALA
- **HIZLARIA:** Aitor Cevitanes, albaitaria eta NEIKER Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako erakundeko ikerlaria



Euskal Herrian kaparren populazioa handitu den susmoa dago azkenaldian, nahiz ez dagoen uste hori babesten duen ebidentzia zientifikorik. Ildo horretan, NEIKER zentro teknologikoa PyrTick proiektu europarrean parte hartzen ari da, Pirinioen alde bietako eskualdeetan kaparren populazioa eta gizaki nahiz animaliei transmititzen dizkieten gaixotasunen hedapena ezagutzeko asmoz. Ildo horretan, Cevitanes ikerlariak Euskal Herrian ditugun kapar espezieez, hauen arriskuez eta ziztaden aurrean jarraitu beharreko neurriez berba egingo du.

Arrantza industrial: Getariako hegala buru haztegi kasua

- **EGUNA:** OTSAILAK 25, ASTEARTEA,
- **HIZLARIA:** Lorea Flores, biologoa eta *Greenpeace*ko hego Euskal Herriko koordinatzailea



Getariako kostatik 3,7 itsas-miliatara 50 metroko diametroa eta 40 metroko sakonera duten bi kaiola ipini dituzte hegala buru (atun gorria) hazteko. Eusko Jaurlaritzak bultzatu duen proiektua da, Bizkaiko eta Gipuzkoako kofradien oniritziarekin. Proiektu honek izan ditzakeen ondorioez berba egingo du Lorea Flores biologoak. Aurretik *Stolen fish* dokumental laburra emango da. Gambiako arrantzaleen arazoak erakusten du: bertako kostaldean arrainak gabe geratzen ari da, lege kanpoko arrastre-ontziek arrain-uruna egiteko arpilatzen dutelako.

Urdaibai: arriskuan dagoen Biosfera Erreserba. Zein da bere etorkizuna?

- **EGUNA:** OTSAILAK 26, ASTEAZKENA
- **HIZLARIA:** Eider Gotxi, *Guggenheim Urdaibai Stop* plataformako kidea



Muruetako ontziolaren orubean Guggenheim museoa eraikitzekeo proiektua zeresan ugari ematen ari da azken urteotan, milaka bisitari erakarriko lituzkeen azpiegitura horrek Urdaibaiko erreserban izango lukeen eragina kontuan hartuta. Hain zuzen ere, pasa den abenduan bete dira lau hamarkada UNESCOk Biosfera Erreserba izendatu zuenetik (1984), natur eta kultur balibideak kontserbatzeko asmoz. Urdaibai erreserbak 22.000 hektarea hartzen ditu, eta hegaztien babeserako zona berezien programan ere badago, Natura 2000 sarearen barruan.

ERAKUSKETA ETA IRTEERA

'TXORIAK TXORI'

Gure inguruko parke eta basoetan bizi diren eta beraien kantuz gure egunerokoa alaitzen duten txori txikiei buruzko erakusketa prestatzen ari dira Natur Eskolako kideak Ingurumen Jardunaldietarako. Txantxangorria, amilotxa, burubeltza, txepetxa, erregetxoa, moko-lodia, moko-okerra... txori mota ezberdinei buruzko ezaugarri eta bitxikeriak ezagutzeaz gain, txorien egurrezko tailak eta argazkiak ikusteaz gain, kantuak entzuteko aukera izango dugu, diorama ezberdinetan kokatuta.



BISITA GIDATUA ETA IRTEERA

Erakusketa otsailaren 10etik martxoaren 2ra egongo da ikusgai —kultur etxeko erakusketa aretoan, egunero 18:00-20:00—. Bisita gidatuak egingo dira otsailaren 10, 19 eta 27an (18:00) Natur Eskolako kideen eskutik. Bestalde, otsailaren 22an, larunbata, irteera-ibilaldia egingo da Oñatiko natur eskola inguruko basoetan, txoriak behatu eta entzutera. Asier Sarasuak (biologoa) eta Iker Novoak (basozaina eta Aranzadiko kidea) gidatutako ibilaldia izango da, bi ordu ingurukoa, goizeko 9:30etan hasita. Izena emateko: natureskola@yahoo.es.



ZINE-KLUBA

Zine-klub saioak ere, urtero bezala, bat egingo du aurten ere Ingurumen Jardunaldiei eta, hala, natura eta ingurumenaren zaintzarekin lotutako bi film berezi ikusteko aukera izango dugu.

Otsailaren 20an Oskar Alegiaren hirugarren ez-fikziozko filma (**Zinzindurrunkarratz**) ikusteko aukera egongo da. Bere herriko artzainek mendira egiten zuten transhumantzia bidea berreskuratzen du zinegile nafarrak, *Paolo* izeneko astoa lagun duela. Memoriaren zirrikituetara egindako bidaiak poetiko ederra. Zuzendaria bera etorriko da Oñatira.

Otsailaren 27an 'El mal no existe' filma (Epaimahaiaren sari nagusia 2023ko Veneziako zinemaldian) ikusteko aukera izango dugu, Ryūsuke Hamaguchi zuzendari japoniarrarena. Tokyo ondoko herrixka batean glamour handiko kanpin bat erakitzeak ingurumenean eta bertako bizilagunengan eragingo duen inpaktua kontatzen du.



◀ Oskar Alegria zinegile nafarra Oñatira etorriko da bere filma aurkeztera



EGITARAUA

ERAKUSKETA

- 'TXORIAK TXORI' Otsailak 10-martxoak 2, Kultur etxean, egunero 18:00-20:00. Bisita gidatuak: otsailak 10, 19 eta 27 (18:00)

HITZALDIAK

Kultur etxean, 19:00

• OTSAILAK 19

"Itsas ekosistema bentonikoa: funtsezko bioadierazlea! Hizlaria: Nahiara Muguerza Latorre, EHUko irakaslea eta Itsas Bentos Ikerketa taldekoa

• OTSAILAK 21

"Kaparrak, ziztatadatik haratago." Hizlaria: Aitor Cevidanes, albaitaria eta NEIKEReko ikerlaria

• OTSAILAK 25

"Stolen Fish" dokumental laburra eta hitzaldia: "Arrantza industriala: Getariako hegala buru haztegien kasua" Hizlaria: Lorea Flores, biologoa eta Greenpeaceko Hego EHko koordinatzailea

• OTSAILAK 26

"Urdaibai: arriskuan dagoen Biosfera Erreserba. Zein da bere etorkizuna?" Hizlaria: Eider Gotxi, (Guggenheim Urdaibai Stop plataforma)

ZINE-KLUBA

Kultur etxean, 19:30etan

• Otsailak 20:

'Zinzindurrunkarratz' (Oskar Alegria)

• Otsailak 27: "El mal no existe". (Ryūsuke Hamaguchi)

IRTEERA

TXORIAK ENTZUN ETA IKUSTERA Otsailak 22 (larunbata), 9:30etan Natur Eskolan Izena emateko idatzi: natureskola@yahoo.es

ZUHAITZ EGUNA

Otsailak 23 (igandea), 10:00etan herriko plazan

ZUHAITZ FERIXIA

Martxoak 1 (larunbata), 9:00tan herriko plazan



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Eskola, aurzoa, herria

MATRIKULAZIO EPEA otsailaren 3tik 14ra



Guztiz zuzena da iraberran eskola bitarteko aukera izango duzue.
Hizuntza eskatzeko 3 aukera dauzue

QR codea: www.urgain.net/urgain-herria
Eskolako katea: klaseak@urgainemakale.eus
943 89 91 34






BEGIZTA

Internet bidezko telebista plataforma sortu dute ONAROK eta IZARKOMek

- > Euskarazko tokiko telebistak eta LTDko kanal guztiak Internet bidez ikusteko aukera ematen du
- > Internetera konektatutako edozein gailutan (telebista, ordenagailu, telefono, tablet, iPad...) erabil daiteke
- > Euskarazko tokiko telebistak eta euskaraz sortzen diren edukiak euskal herritar guztiengana iristea ahalbidetuko du Begiztak, munduko edozein tokitan daudela ere

Onaro-k (Oñatiko telekomunikazio operadorea) eta **Izarkom-ek** (Euskal Herriko telekomunikazio kooperatiba) BEGIZTA izeneko *streaming* plataforma jarri dute abian, Internet bidezko telebista zerbitzua emateko. Orintsu arte Interneteko sarbidea eta telefonia zerbitzuak eskaintzen zituzten *Onaro-k* eta *Izarkom-ek*, baina, aurrerantzean, telebista zerbitzua ere eskainiko dute




COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPECIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎️ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉️ OIÑATI@COINBROKER.EUS



Begizta plataformaren bidez. Zehazki, Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) bidez jasotzen diren kanal guztiak (ETB, La 1, Antena 3, Cuatro, La Sexta, kate autonomiko eta tematikoak...) eta euskarazko tokiko telebistak ikusi ahal izango dira *Begizta* plataformaren bidez; guztira, 65 bat telebista-kate, oraingoz.

Beraien zerbitzuak eskaintze-rakoan *Onaro*-k eta *Izarkom*-ek ikusten zuten arazo edo behar bati irtenbidea ematea izan da *Begizta* plataforma sortzeko arrazoietakoa bat. "Kontua da, gaur egun etxe askotan Internet bidez jasotzen dutela telebista seinalea, eta ez antenatik. Ondorioz, operadorea aldatu eta *Onaro*-ra edo *Izarkom*-era etorri nahi zuten herritarrak telebistarik gabe geratzeko arriskua zegoen. Beraz, zerbait eskaini beharra geneukan, jendea telebistarik gabe ez geratzeko", azaldu digu Xabier Igartuak, *Onaro*-ko arduradunak.

TOKIKO TELEBISTEK LEHENTASUNA

Aukera ezberdinak aztertu ondoren, Internet bidezko plataforma bat sortzea erabaki zuten *Onaro* eta *Izarkom*-eko arduradunek, gutxienez LTDko kateak eskaini ahal izateko bezero eta bazkideei.

Baina argi zuten, era berean, plataforma hori ezin zela izan soilik LTDko kateak eskaintzeko. "*Onaro* eta *Izarkom* herri proiektuak dira eta, beraz, pentsatu genuen euskarazko tokiko telebistek plataforman sartzeko aukera eskaintzea eta, modu horretan, gure filosofiarekin bat datorren izaera ematea *Begizta* plataformari", azaldu digu Igartuak. "Azken batean, *Begizta*-ren



2,95
€/hilean

- *Begizta* plataformaren zerbitzua 2,95€-ren truke kontratatatu daiteke ONAROren bulegoan. Lehenengo hilabetea dohainik

- Edozein herritarrek kontratatatu dezake *Begizta*. Ez da derrigorrezkoa Interneteko konexioa ONARO-rekin edukitzea

- Kontratu bakoitzeko 5 erabiltzaile-profil sortu daitezke, eta edozein kanaletara aldi berean konektatzeko aukera dago

- Informazio gehiago ONARO-ren bulegoan (Bidebarrieta kalea, 24 / 943 718 010 / arreta@onaro.eus /onaro.eus



▲ ZERBITZU TEKNIKO AZKARRA ETA HURBILEKOA

ONARO Oñatiko telekomunikazio operadoreak tekniko bat kontratatatu du —orain arte azpikontratatu zeukan zerbitzua— eta, horrenbestez, urrats garrantzitsua eman du proiektua sendotze bidean. Tekniko honen bidez zerbitzu azkarrak eta hurbilekoak eman ahal izango die bezeroei, telefonia, Internet edo telebista zerbitzuetan izan ditzaketan arazo eta zalantzak bideratzeko.

bidez ahalbidetuko dugu euskarazko tokiko telebistak euskal herritar guztiengana iristea, munduko edozein tokitan daudela ere. Oñatiko kasuan, *Goiena*-ren seinalea behar bezala iristen ez den lekuetarako irtenbidea izan daiteke, Interneteko seinalea baldin badaukate, behintzat.

Oraingoz, *Goiena*, *Hamaika*, *Kanaldude* (Ipar Euskal Herria) eta *Xaloea* (Nafarroa) tokiko telebistak ikusteko aukera dago *Begizta*-ren bidez, baina, luze gabe, tokiko euskal kate gehiago batuko dira plataformara.

KANAL PROPIOAK

Tokiko telebistak eskaintzeaz gain, kanal propioak sortzeko asmoa ere badute *Begizta*-ko arduradunek. "Adibidez, *Izarkom*-ek *Youtube*-n eman ohi ditu emakumeen pilota partidak, eta, aurrerantzean, *Begizta*-n ikusi ahal izango dira. Musikari buruzko kanalak sortzeko aukera ere badago, edo *Korri-*

ka-ren zuzeneko emanaldiak, eta bideopodcast-ak sortzea izan daiteke beste aukera bat. Azken batean, Euskal Herrian sortzen den eduki guztietarako sarbidea eskaintzea da *Begizta*-ren helburua", azaldu digu Igartuak.

IKUSTEKO MODUAK

Begizta plataformaren zerbitzua *Onaro*-ren bidez kontratatatu ahal izango dugu, hilean 2,95€ (BEZ barne) ordainduta (lehenengo hilabetea doan), eta Interneteko sarbidea duten ordenagailuetan, edozein Android edo iOS gailutan (mugikorra, tableta, iPad, iPhone...) eta telebista adimenduetan ikusi ahal izango dira *Begizta* plataformako edukiak.

Begizta sortzeko, *Perseo* ize-neko aplikazioaz baliatu dira *Onaro* eta *Izarkom*. Aplikazio hau *Google Play* eta *App Store* denda digitaletan deskargatu daiteke eta, gero, hor *Begizta* erabili. Telebista adimenduetan badago aplikazioa instalatuta. -

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIJABAR S.A.I.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 lijabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop


Zientzia Politikoetan eta Soziologian lizentziaduna, kazetaritzan dihardu Dabid Lazkanoiturburuk (Oñati, 1967) 1991z geroztik, aurrena *Egin* egunkarian, eta gerora *Gara*-n, *Nazioartea* saileko arduradun. Eguneroko zurrunbilotik pittin bat aldentuta, gaur egungo nazioarteko gatazka nagusiak ulertzeko gakoak ematen saiatu da ***Un mundo en pie de guerra(s)*** (Txalaparta) liburuan.

Nolatan animatu zara liburua idaztera? Zein helbururekin?

Txalapartak proposatu zidan liburua idaztea, eta zalantzak izan nituen, gaurkotasuneko gai hauek ixtea zaila izaten delako, baina, bestalde, banuen liburu bat idazteko gogoia. Azken batean, hogeita bost urte daramatzat nazioarteko politika jorratzen, eta liburuan saiatu naiz gero eta gatazka gehiago dituen egungo mundu konplexua ulertzen laguntzeko gakoak ematen, ahalik eta modu arin eta irakurterazenean.

Ekialde Hurbileko egoera eta, zehazki, Gazako gatazka edo "genozidioa" aztertu duzu liburuko lehen zatian. Israelek muga guztiak gainditu dituela diozu, eta, hala ere, herrialde arabiarren erantzuna ez dela izan espero zitekeena, ez eta uste bezain beldurgarria ere. Erregimen arabiarren "traizioaz" ere hitz egiten duzu. Nik uste dut Israelek Gazan egindakoa genozidioa dela, argi eta garbi. Ez da erraza juridikoki demostratzea, baina giza eskubideen aldeko erakunde ia guztiak eta NBE-ONUko errelatoerek ere horixe bera diote.

Herrialde arabiarren jokabideari dagokionez, mingarria egin zait ikustea nola joan diren amore ematen palestinarren aurkako sarraskiaren



Egungo dinamika geopolitikoak ulertzeko gakoak

'Un mundo en pie de guerra(s)' liburua plazaratu du Dabid Lazkanoiturburuk, nazioarteko gaietan aditua den kazetari oñatiarrak. Egun munduan gertatzen ari diren eta gerta litezkeen gatazka nagusiak ulertzeko gakoak ematen ditu.

aurrean. Ahotsa altxatu duten apurrek aho txikiarekin egin dute. Eta, hain zuzen, uste dut azken krisi honen jatorria dagoela erregimen arabiarrek Palestinari egindako traizioan. Ez dugu ahaztu behar Maroko, Egipto, Jordania eta Arabiar Emirerri Batuek, besteak beste, hitzarmena

sinatua dutela Israelekin, harremanak normalizatzeko, eta Saudi Arabia sinatzear zegoela. Palestinarrak bakar bakarrik geratzen ari ziren eta, nik uste, *Hamas*-en eraso bortitza palestinar herriaren etsipenaren ondorio izan zela. Ez dut esan nahi horrek *Hamas*-en eraso basatia justifi-

katzen duenik, baina horrela uler daitekeela uste dut.

Israelek eta *Hamas*-ek adostutako su-etena indarrean sartu bezperan egiten ari gara elkarrizketa hau. Zein irakurketa egiten duzu? Bake hitzarmen baterako oinarriak ikusten al duzu?

Ez diot sendotasun handirik ikusten. Akordioa oso hauskorra dela iruditzen zait. Uste dut *Hamas*-en ahuleziaz sortu dela. Ukaezina da *Hamas*-ek kolpe handia jaso duela, baina horrek ez du esan nahi ezabatua izan denik. Areago, uste dut ezinezkoa dela ideia gisa *Hamas* eliminatzea.

Israelen aldetik ere nolabaitetako nekea egon daitekeela uste dut, denbora asko baitaramate gerra-ekonomian murgilduta. Bahituen afera ere hor dago. Baina ez dut uste Gazatik alde egiteko asmorik duenik, inola ere. Trump-en iritsierak ere izango zuen eraginik, baina ez dut uste Trump-ek palestinarrentzat ezer positiborik behartuko duenik, Israelen tesiak erabat babesten baititu.

Errusia eta Ukrainaren arteko gerra ere aztergai duzu liburuan. Nola eragin diezaioke Trump agintera iritsi izanak?

Negoiazioa behartuko duela uste dut. Hain zuzen ere, uste dut Errusia *Donbass* eskualdea bereganatzeko ahalegina egiten ari dela, negoziazio mahaian eseri aurretik, eta Zelenski ere giharra erakutsi nahian ari da irismen luzeko eraso bidez. Baina Ukraina militarki oso ahulduta dagoela iruditzen zait.

Edozein modutan, ez dut uste negoziazio batek bake egoera iraunkorrik ekarriko duenik. Ez dut uste Errusiak onartuko duenik Ukraina Europar Batasunean instalatutako herrialde bat izatea.

Bien bitartean, Txina zain dagoela diozu. "Ez du Errusiak galtzerik nahi, baina ezta irabazterik ere", esaten duzu liburuan.

Bai, Txinak aliantza bat du Errusiarekin, baina ez da ahaztu behar interesak dituela Siberian, besteak beste. Txina eroso dago, zezenei hesitik begira, ohikoa duen diplomazia 'biguna' aplikatuz, helburu argi batekin: poliki poliki hazten jarraitzea, eta 2049 urtean munduko lehen potentzia bilakatzea.

Asia eta Pazifikora begira jarrita, Taiwan irlan jartzen duzu, bereziki, fokua. Gaza edo Ukrainako gatazkak txiki utziko lituzkeen txoke militarra gerta omen liteke bertan. Zergatik da hain garrantzitsua Taiwan bezalako irla txiki bat?

Hego-Txinako itsasoaren kontrola bereganatzeko pieza giltzarria da Taiwan. Kontuan hartu, Ozeano Barea eta Indikoaren arteko itsas-lotura nagusia dela Hego-Txinako itsasoa, eta gas nahiz petrolio erreserba izugarriak dituela, besteak beste. Horregatik, tentsio handia dago inguru horretan. Txinak gatazkak ditu Filipinekin eta Vietnamekin, eta, bestalde, Estatu Batuak ere hariak mugitzen ari da bere aliatuen (Japonia eta Hego Korea) bidez, Txinaren espantsionismoa oztopatzeko.

Txinak dio Taiwan bere herrialdearen parte dela, arrazoi historikoak tarteko, eta, horregatik, Taiwan bereganatzeko asmoa du. Baina, bestalde, taiwandarrak beraien bidea egin nahi dutela erakusten ari dira —azken hiru hauteskundeetan subiranistak nagusitu dira—, eta hor gatazka sor liteke. Ez da ahaztu behar *Shi Jinping* presidenteak 2026a ezarri zuela Taiwanen anexionarako epe-muga gisa, eta azkenaldian maniobra militar ugari burutzen ari da bertan.



▲ Herriko liburu dendetan eskura daiteke *Un mundo en pie de guerra* (Txalaparta) liburua

EKIALDE HURBILA

» *Mingarria egin zait herrialde arabiarrek amore ematen ikustea palestinarren aurkako sarraskiaren aurrean*

UKRAINAKO GERRA

» *Trumpek negoziazioa behartuko du, baina ez dut uste bake egoera iraunkorrik ekarriko duenik. Errusiak ez du onartuko Ukraina Europar Batasunean instalatutako herrialdea izatea*

ASIA-PAZIFIKOA

» *Gaza edo Ukrainako gerrak txiki utziko lituzkeen txoke militarra gerta liteke Taiwanen. Txinarentzat giltzarria da Hego-Txinako itsasoaren kontrola bereganatzeko*

AFRIKA

» *Niretzat Afrika da etorkizuneko kontinentea, baina ez zaio uzten. Sudangoa, egun munduan dagoen krisi humanitario larriena da*

Bestalde, argi dago *Trump* ere Txinara begira dagoela eta bere helburu nagusia Txina menperatzea dela, kometzialki eta ekonomikoki.

Funtsean, munduko gatazka ia guztien atzean egungo bi potentzia handien (Estatu Batuak eta Txina) eta haien aliatu txikien (Europa eta Errusia) arteko munduko hegemonia lortzeko borroka dagoela diozu. Ildo horretan, Estatu Batuak gainbeheran dagoen inperio bat bezala ikusten duzula diozu.

Bai. Uste dut *Trump* bezalako fenomeno bat azaleratzea dela horren adierazle garbia. Sobiet Batasuna desegin ostean bazirudien, eta hala izan zen urte batzuetan, Estatu Batuak ezarritako ordena liberalaren arabera mugituko zela mundua, baina egungo potentzia emergenteek (Txina, India, eta, maila txikiagoan, Turkia eta Golkoko erregimen arabiarrek), beren agenda propioa daukate, eta Estatu Batuak lehen potentzia izaten jarraitzen badute ere (militarki, ekonomikoki eta baita ikerketan ere), ez daude agendak inposatzeko moduan, lehen bezala.

Eta testuinguru horretan, non Estatu Batuak atzeraldian dauden, eta Txina gorantz datorren, baina ez uste zena bezainbat, Europak erabaki behar du non dagoen bere tokia eta zer egin nahi duen une geopolitiko honetan.

Afrikan gertatzen ari diren sarraskiak ere jorratzen dituzu liburuan. Batez ere, Kongo eta Sudango gerrak, milaka hildako eta milioika desplazatu eragiten dituztenak, komunikabideetan hainbesteko oihartzunik ez badute ere. Ba al du konponbiderik Afrikak?

Kongokoa, Afrikako betiereko mundu-gerra da, amaierarik ez duena. Eta Sudangoa, egun munduan dagoen krisi

humanitario larriena dela esango nuke, Gazakoa bera baino larriagoa.

Afrikako gatazka hauetan eszenifikatzen da, hain zuzen, lehen aipatu dudan mundu multipolarra, non potentzia pila bat dabilen Afrikako baliabideez jabetu guran. Hor dago mendebaldea, bere historia kolonialarekin, hor dago Errusia, mertzenario-armadak (*Wagner* Taldeko kide ohiak) dituen hainbat herrialdetan, eta hor ari da Txina, ahalik eta mineral gehien eskuratzeko ahaleginean.

Drama izugarria iruditzen zait. Niretzat Afrika da etorkizuna. Bertatik gatoz denok, eta uste dut etorkizuneko kontinentea dela, baina ez zaio uzten. Egia da, halaber, bertako hainbat erregimen, Hegoafrikako eredia eta besteren bat salbu, ez direla onargarriak, eta horren ondorioa da, adibidez, Mediterraneo itsasoko drama ere.

Saharako gatazkari dago-kionez ezkor mintzatzen zara liburuan. Palestinarrak bezala, sahararrak ere abandonatuak izan direla diozu.

Hala da. Pedro Sanchezen gobernuak abandonatu zituen 2022an, Marokok aurkeztutako autonomia proposamenaren alde eginez, Frantziak eta beste herrialde askok bezalaxe. Ez dezagun ahaztu, *Trump*-ek errekonozitu zuela Sahararen gaineko Marokoren subiranotasuna, *Rabat* eta *Tel Aviv*-en arteko hartu-eman diplomatikoak normalizatzearen truke.

Sahararrak erabat isolatuta gelditu dira, lurralde okupatuetan abandonaturik, edo *Tinduf*-eko (Aljeria) kanpalekuetako baldintza gordinetan. Guztion begien aurrean gertatzen ari den zerbait da, inpotentzia handia sortzen diguna, baina, tamalez, sahararren eta palestinarren patua parekagarria dela uste dut. ■



22 milioiko aurrekontua 2025erako

EH Bilduren aldeko eta EAJren ezezko botoz onartu dira 2025eko Udal Aurrekontuak

2025eko Udal Aurrekontuak onartu zituen udalbatzak urtarrilaren 30eko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko eta EAJren ezezko botoz. Horrenbestez, udalak **22.083.888** euro izango ditu aurtengo gastu, egitasmo eta erronkei aurre egiteko.

lazkoarekin alderatuz, aurtengo aurrekontua %4,48 txikiagoa da, baina ez da ahaztu behar, 2024an *Next Generation* laguntzei lotutako 2,16 milioi euroko diru-sarrera berezia izan zuela Udalak. Partida berezi hori kontutan izan barik, %5,4 handiagoa izango litza-teke aurtengo aurrekontua.

Diru sarrerari dagokionez, azpimarratzekoa da hondakinen tasan legez aplikatu behar izan den %33,60ko igoseraren ondorioz 314 mila euro gehiago


jasoko dituela Udalak, eta, bestalde, Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak ere %2,4ko igoera (244 mila) izan duela.

Azpimarratzekoa da, halaber, onartu berri diren aurrekontuek 1,8 milioi euroko aurrezki arrunta aurreikusten dutela —sarrera

arruntak %5,27 igotzen dira, eta gastuak %3,98— eta, horrenbestez, autofinantzaketa ahalmena igotzen delarik.

Inbertsioetara 2,5 milioi pasatxo bideratuko dira, eta aurrekontua orekatzeko 475 mila euroko mailegua aurreikusi da, baina 2024ko likidazioa egite-rakoan ikusiko da beharrezkoa den ala da.

Finantza zamari dagokio-nez, udalaren zorpetze maila %4,91koa da —iaz %5,51—. Zor bizia 7,1 milioi eurokoa da.



DIRU SARRERAK KAPITULUKA

I. ZUZENENKO ZERGAK (Kontribuzioa, Ibilgailuak, Jarduera ekonomikoak, Gainbalioa...)	4.782.176
II. ZEHARKAKO ZERGAK (Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga)	500.000
III. TASAK ETA BESTE SARRERAK (Kirolegia, Hondakinak, Etxez-etxeko laguntza...)	3.78.136
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Foru funtsa, gizarte zerbitzuetako laguntzak...)	11.310.305
V. ONDARE-SARRERAK (Oñargi, Ur Jauziak)	847.010
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Hirigintza kuotak (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...)	375.410
VIII. FINANTZA AKTIBOAK (kapital itzulketak, interesak...)	5.500
IX. FINANTZA PASIBOAK (mailegua)	475.348
GUZTIRA	22.083.888

GASTUAK KAPITULUKA

I. PERTSONAL GASTUAK	7.319.914
II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK Etxez-etxeko zerbitzua, Lorezaintza, Eskuhartze psiko-soziala, Gaztelekuko sustapena, Kirolegia, Herribusa, argindar publikoa, Natur Eskolako kontratua ...	7.684.342
III. FINANTZA GASTUAK Maileguen interesak; ...	248.878
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK Mankomunitatea, Gizarte larrialdiak; Musika Eskola, Aloña Mendi, Hirugarren mundua...)	4.140.784
VI. INBERTSIO ERREALAK	2.541.823
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK Mankomunitateari laguntzak inbertsioetarako, Arantzazu Fundazioari	112.304
VIII. FINANTZA AKTIBOAK	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (amortizazioa)	7.840
GUZTIRA	22.083.888

UDAL TALDEEN BALORAZIOAK

"Oñatiarren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko" aurrekontuak dira, EH Bilduren ustez

Oñati berdinzaleago bat, bidezkoa, herritarrek erdigunean dituen, partaidetzarako bitartekoak eskaintzen dituen, iraunkorra eta herritarren lana aitoritzen duen herri-ereduan sakontzea da EH Bilduk landu eta aurkeztu dituen 2025eko udal aurrekontuen xedea.

Bertan jasotzen diren egitasmoen artean honakoak aipatu ditu gobernu taldeak: "Zaintzaren arloan aurrera-pausoak emateko konbikzioz jardungo dugu; Etxez-etxeko laguntza zerbitzuak %13ko igoera izango du (1,3 milioi, gutzira), eta zaintza eredu berrien inguruko lanketa hasiko dugu. Berdintasunari dagokionez, genero-ikuspegia sail guztietara eramaten jarraituko dugu, eta urrats sendoak emango ditugu Emakumeen Etxearen proiektuan".

Iraunkortasuna da agintaldi honetako beste ardatz nagusietako bat EH Bidurantz, eta arlo honetan ere "inbertsio esanguratsuak" iragarri dituzte energia efizientziaren bidean eta energia sor-kuntzarako proiektu lokalak sustatuz, besteak beste.

Landa auzoetako diru laguntza eta inbertsioetarako (300 mila euro pasa) eta landa-lur partzelen digitalizazioarekin jarraitzeko (50 mila euro) ere azpimarratu ditu EH bilduk. "Eta herriguneko irisgarritasuna hobetzeko kontu saila 160 eurotan igo dugu (460 mila, gutzira)".

Tokiko elikadura jasagarriaren eta elikadura burujabetzaren bidean ere urratsak eman nahi ditu udal gobernuak, eta, ildo horretan, 25 mila euroko partida sortu du, Oñatiko Elikadura Mahaia egonkortu eta hortik eratorriko diren ekintzak burutzeko.

Kultura eta Euskara arloan, "herriko eragile eta sortzaileen lana sustatzen eta babesten" jarraituko du udalak, baina 400 mila euroko ez-ohiko diru partida berri bat ere jaso da aurrekontuetan, Euskaltegia, Euskaldun Berria gela eta Txipistin zerbitzuaren egoitza eraberritzeko.

Natur Eskolako zerbitzua indartu (123 milatik 170 milara igo da partida), herri onurako lurren kudeaketa iraunkorrean sakondu, tokiko merkataritza sustatu (30

» **Next** funtsetik lortu ditugun laguntzei loturiko proiektuek gure egitasmo batzuk pittin bat atzeratzea ekarri du, baina bat bera ere ez da geratuko guzatu barik

mila euro) eta herriko hezkuntza eragileekiko lankidetzaren areagotzeko diru-atala (56 mila€) handitu izana ere azpimarratu ditu EH Bilduk. Azkenik, 'Harrera' eta 'Etxebizitza' plan integralak landuko dituztela ere aurreratu du gobernu taldeak.

EAJren EMENDAKINAK

EAJk aurkeztutako emendakinetatik bat —Eltzia pareko jolaslekuaren eta errepidearen artean segurtasun baranda jartzea— onartu du EH Bilduk. Gainerakoak ez ditu egoki ikusi. Oñati eta Elorregi artean autobus linea bat ipintzea Aldundiaren betebeharra dela dio. Bestalde, Eltzia eraikinean gimnasioa egokitzea ez du egoki ikusten, eta kiroldegian inbertsioak egitearen aldeko apustua egiten du —aurrekontuetan 20 mila euroko diru partida dago makina berriak erosteko—.

Herrian pantaila digitalak ipintzeari dagokionez, EH Bilduk uste du ez dela eraginkorra, eta *Kontzejupetik* aldizkariaren gaztelaniazko bertsio digitala egitea ere ez du beharrezko ikusten. Azkenik, Musika eskolari dagokionez, gobernu taldeak gogorarazi du udalak bere lana (diagnostikoa) egin daukela eta eskolako zuzendaritzari dagokiola orain proiektu pedagogikoa zehaztu eta hurrengo urratsak ematea, Udalaren laguntzarekin, beti ere.

Inbertsioen exekuzio maila baxua dela dioen EAJren kritikari erantzunez, zera esan du udal gobernuak. "Next Generation funtsetik jasotako diru laguntzei lotutako proiektuek gure beste egitasmo batzuk pittin bat atzeratzea eragin du —epe-muga bat dutelako burutzeko—, baina hori baino inportanteagoa da Next funtsetik 2.1 milioi lortu izana. Proiektu bat bera ere ez da geratuko egin barik".

"Zehaztasunik eza eta planifikazio falta" egotzi dio EAJk udal gobernuari

EH Bilduren 2025eko aurrekontu proiektua "behin eta berriz erre-pikatzen diren promesa hutsez" bete dagoela adierazi du EAJren udal taldeak. Oposizioarekin lanketa egin ez izana ere kritikatu dute jeltzaleek eta, ildo horretan, EAJk aurkeztutako 6 proposamenetatik bakarra —Eltzia parean, errepidea eta jolaslekuaren artean segurtasun baranda bat jartzea— onartu izana salatu dute, "inbertsioen %0,06 (1.500€ suposatzen duena).

Gogoratu, beste proposamen hauek ere aurkeztu zituela EAJk: **1.** Herribusaren linea berria jartzea Oñati eta San Prudentzio artean, Aldundiak zerbitzuen berrantolaketa egin bitartean; **2.** Pantaila digitalak ipintzea herriko zenbait gunetan herritarrekiko komunikazioa hobetzeko; **3.** Eltzia eraikinean gimnasioa egokitzea, kiroldegikoa arintzeko; **4.** Musika eskola berriaren kokapenaren azterlana egitea; eta **5.** Kontzejupetik aldizkariaren gaztelaniazko bertsio digitala.

» **Gure 6 proposamenetatik bakarra onartu du EH Bilduk, aurtengo inbertsioen %0,06 suposatzen duena**

Inbertsioen atalean zehaztasunik gabeko hainbat partida orokor daudela kritikatu dute jeltzaleek; esaterako: 'Irisgarritasun obrak' (400.000€) edo 'Inbertsioak auzoetan' (165.000€). "Ez dute helburu argirik eta proiektuen jarraipena eta gauzatzea zailtzen dute".

EXEKUZIO MAILA BAXUA

Bestalde, iazko aurrekontuen exekuzio maila baxua ere kritikatu du EAJk. "Next Generation laguntzekin lotutako proiektuen gauzatzea ez da %8ra iritsi eta, bestalde, Aurrekontu Parte-Hartzaileetako proiektu batzuek (8-14 urtekoendako jolas parkea' eta 'Plazako kiosko inguruak egokitzea') gauzatu barik jarraitzen dute 2023tik", adierazi dute. "Planifikazio falta eta kudeaketa ez eraginkorraren erakusle dira. Urtez urte inbertsioak eta proiektuak promesten ditu EH Bilduk, gero gauzatzen ez diteunak". Kudeaketa arduratsua eskatu dute jeltzaleek. -



Urik gabeko aisialdi gune bihurtuko da Olakuako urmaela

Ura lurpetik kanalizatu eta putzuaren oinarria hormigoiz estaliko dute, egonleku mailakatuak eta ibilbide natural eta irisgarriak egokitzeke



Urteetan Olakua auzoko ikur izan den urmaela desagertzera doa. Udalak gune hori birmoldatzea erabaki du, ur putzua hustu eta, horren ordez, egoteko, elkartzeko, paseatzeko edota jolas egiteko parkea egokituko du, adin guztietako herritarren erabilera eta gozamenerako. Eta, bide batez, uraren presentziak sortu ohi dituen arazoak (arratoiak, zikinkeria) ekidin nahi ditu esku-hartze honen bidez.

Horretarako, urmaelera iristen den ura —errekatik desbideratuta dator eta Bidaurreta komenturaino doa—, lurpetik bideratuko dute hodian bidez,

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

eta urak utziko duen eremua hormigoiz estali eta mailakatutako egonleku edo terrazak egokituko dituzte bertan, naturaz gozatzeko eremu anitzak sortuz.

ZUBIA MANTENDU

Ezkerreko irudietan ikusten den moduan, gunearen esentzia edo izaera aldatuko bada ere, urmaela parke bilakatuz, gaur egungo zenbait elementu arkitektoniko (zubia eta gunea zeharkatzen duten harrizko ibilbide nagusiak) mantendu egingo dira, auzotarren eskariz, oroigarri eta hainbat urtez bertan egon den putzuaren ikur gisa.

Urmaela eta kirol gunearen artean dagoen berdegunearen zati bat ere eraldatu egingo da, egoteko gune ezberdinak sortu eta ibilbide sare irisgarria egokitzeko. Parkea alderik alde zeharkatu ahal izateko irisgarritasuna bermatu nahi da horrela. Gainera, eremu osoan zehar landare eta zuhaixka ezberdinak landatuko dira, itzal eta eguzki eremuak sortuz eta, modu horretan, parkea urte osoan zehar egon dadin erabilgarri, urtaroen menpe egon barik.

Udalak Olakuako San Andres kooperatibako ordezkarien iritzia eta egarriak kontuan hartu ditu proiektua definitzeko garaian. Azken batean, herritarren saretze, sozializazio eta elkarbizitzarako eremu natural, atsegin eta irisgarria sortzea da asmoa.

EPEAK

Izarraitze Lorentzaintza enpresak idatzi du Olakuako parkea birmoldatzeko proiektua. Egitasmoak 99.992 euroko aurrekontua du (BEZ barne), eta Udalak hil honetan bertan aterako ditu lizitaziora. Lanen iraupena hilabete eta erdi-bi hilabete ingurukoa izango da, eta Udalaren asmoa da ekainean ospatuko dituzten auzoko jaietarako amaituta egotea; baina epe hori betetzea ezinezkoa dela ikusten bada, auzoko jaiak igaro ostean hasiko lirateke lanak, udal arduradunek azaldu dutenez.



Garibain, Olabarrietan eta Olakuan markesinak ipini ditu udalak

> Olabarrietako geltokietan pultsadoreak ere egokitu ditu, autobus gidariak ohartarazteko



Mugikortasuna hobetu eta autobus zerbitzu publikoaren erabilera sustatzeko asmoz, Udalak markesina berri bana ipini ditu Olakuan (apurtuta zegoena ordezkatzuz), Olabarrietan (Udanarako norabidean, beste aldean lehendik dagoen harrizko geltokia osatuz), eta Garibai auzoan (Zubillagarako norabidean). Beste aldean ipintzeko aukera ere aztertu da, baina momentuz ez da aukerarik ikusten antzeko markesina bat kokatzeko, udal arduradunek adierazi dutenez. Aurrera begira, Ulma Polimeroko geltokian ere markesinak jartzeko lanketa egiten ari dela jakinarazi du Udalak.

PULTSADOREAK OLABARRIETAN

Ondoko argazkietan ikusten den moduan, Udalak, Foru Aldundiarekin adostuta, pultsadoreak ipini ditu Olabarrietako markesinetan autobus gidariak ohartarazteko. Botoia sakatuz gero, semaforoan goialdean egokitu den 'BUS' pantailatxoak pisatzen da. Modu horretan, autobusaren zain dauden herritarrak lasai egon ahal izango dira babesean.



Amiantoa zuten hilobietako itxitura plakak aldatu dituzte



Kanposantuko gune berriko sotoan dauden nitxoetako 1.385 itxitura plaka aldatu ditu Udalak, amiantoa zutelako. Horien ordeztu, hormigoizko polimerozkoak jarri dira, Ulma Polimerok egindakoak (26.400€). *Kuber* enpresa espezializatuak burutu ditu fibrozementuzko plakak kendu eta amiantoa kudeatzeko lanak (30.562€), eta udal brigadak ezarri ditu plaka berriak. Udalak hartu du bere gain kostu osoa.

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

**NI
moda**

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Aholku Kontseilua berritzeko deialdia egin du Udalak

> Herriko elkarte eta eragilez osatutako organo kontsultiboa da Aholku Kontseilua, **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra** berritzeko prozesuan laguntzeko



Udal gobernuaren asmoa da aurtengo lehen sei hilabetean ematea hasierako onarpena HAPO berriari

Etorkizuneko Oñati nolakoa izatea nahi dugun zehazten duen dokumentua (**Hiri Antolamendurako Plan Orokorra-HAPO**) berritzeko prozesuan murgilduta dago Udala. 2018an abiatu zen prozesua, eta gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin ostean, 2021eko ekainean 'Oñatiko Planeamendurako Aurre-rakina' izeneko dokumentua onartu zuen udalbatzak.

Dokumentu horretan helburu eta irizpide nagusiak finkatu ziren, eta ordutik hona HAPOaren hasierako dokumentua landu da, bere egunean herritarrek aurkeztutako iradokizun, proposamen eta helegiteei emandako erantzuna aintzat hartuta.

Udal gobernuaren asmoa da aurtengo lehen sei hilabetean ematea hasierako onarpena HAPO berriari, baina, aurretik, orain arteko faseetan egin duen modura, herritarren parte hartzea bermatzeko zenbait mekanismo jarriko ditu abian.

Hala, hurrengo hilabeteetan herritar guztiei zuzendutako informazio saioak antolatuko dira, HAPO berriaren hasierako dokumentuak jasotzen duenaren berri emateko. Eta, horrekin batera, Udal Plangintzako Aholku Kontseilua ere berritu behar du, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak agintzen duena betez. Legeak dio Plan

Orokorrak onartzeko eskumena duten 7.000 biztanletik gorako udalek derri-gorrez eratu behar dutela herritarren ordezkari osatutako Aholku Kontseilua.

ZER DA AHOLKU KONTSEILUA

Izenak dioen moduan, aholkua emateko organo edo foroa da Aholku Kontseilua. Bertan hartzen diren erabakiak ez dira lotesleak udalarentzat, baina kontuan hartuko dira, eta hala gertatzen ez denean, erantzun arrazoitua jaso beharko du.

Oñatiko Udal Plangintzako Aholku

IZENA EMATEKO

Aholku Kontseiluan parte hartu nahi duten elkarte eta herri-eragileek otsailaren 28a baino lehen eman behar dute izena udaleko erregistroan, telematikoki (legez eraturako elkarten kasuan) edo aurrez aurre, HAZ bulegoan (bestelako herri-eragile edo taldeen kasuan).

Informazio edo argibide gehiagorako:

- 943780411 (126 luzapena)
- partaidetza@onati.eus

Informazio gehiago QRan



Kontseilua eratu eta jarduteko araudiak dio kideak agintaldiarekin batera berrituko direla, eta hori da, hain zuzen, udalak egin berri duen deialdiaren helburua.

Udal ordezkariak duten alderdi politikoek gain, ondorengo arloetan diharduten elkarte eta eragileek parte har dezakete Aholku Kontseiluan: Landa auzoa; herriguneko auzo elkarteak; ingurumenaren babesa eta defentsa; abeltzaintza eta nekazaritza; basogintza; kultur ondarearen babesa; kirola; dibertsitate funtzionala; merkataritza eta ostalaritza; mugikortasun iraunkorra; enpresa elkarteak; sindikatuak; gazteria; hirugarren adina; talde feministak; kultur- eta jatorri-aniztasuna; eskola komunitatea.

Legez eraturako elkarte eta erakundeetako, eta bestelako herri-eragile antolatuetako ordezkariak izan daitezke Aholku Kontseiluko kide. Norbanako edo herritar partikular gisa ezin da Aholku Kontseiluan parte hartu.

Gaia garrantzitsua da, HAPOan finkatzen baita, besteak beste, Oñatin non eraiki ahal izango diren etxebizitzak, non lantegiak, non azpiegitura eta ekipamenduak... Hitz batean, nolakoa izango den gure herria hurrengo 20-30 urteetan. Horregatik, Udalak dei egiten die herriko elkarte eta eragileei Aholku Kontseiluan parte hartzera anima daitezen. -

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

AYESTARAN
RAIKUNTZAK S.L.

Aita Lizarralde, 8-Behea / 943716454 / iayestaran.com

obra berria / eraberritzeak / etxebizitzaren eraberritzeak /
igogailuak / kota 'O' lanak /
fatxada eta teilatuak

OÑATIAR IZATEKO 11 MODU DAUDELAKO...

Elkar hezi-n,
gure ikasle bakiltza,
harrokerian gabe baina harrotasunez,
ofatiaz izatearen bere bertsioa
izan dadin
gure alia jartzen dugu.

Elkar Hezi. Hemen,
garrantzitsuena ez da
bat gehiago izatea.
Garrantzitsuena zu zuei izatea da.

ARRIEMATRINKULA EPEA
OTSAILAK 3-14



WU-HE-MAHUL'
EBEIA
BOZ



ESKOLA
ESKOLAK
HEZKIDIA

*Zatituz Elkar Hezi eragutzera
barkaria edo taldean

Maiztasunarekin: www.elkarhezi.eus
943 71 62 70 / 800 621 195



Urrats berriak ENERGIA MERKATURATZAILEA sortzeko bidean

Herrian sortutako energia oñatiarrek modu zuzenean kontsumitzea posible egingo duen Oñatiko energia merkaturatzailea abiarazteko bidea hasiko du Udalak. Oro har, Udal Gobernuak aurreko legealdian aurkezturiko energia berriztagarrien planari loturiko urrats berri bat da, besteak beste, energia bulegoaren sorrerari, energia autosufizientzian sakontzeko udal eraikinetan sorkuntza proiektuei —teilatutako fotovoltaikoei, adibidez—, efizientzia energetikoaren aldeko neurriei edo herritarrek energia komunitateak sortzeko aukera izan dezaten prozesuak diseinatzeari batzen zaiena. Energia merkaturatzailea sortzeari dagokionez, urrats esanguratsuak egingo dira otsailean, hilabete batzuk iraungo duen proiektua martxan jartzeko ibilbidea abiatuz.

Bestelako pauso tekniko eta administratiboaren artean, Udalak garrantzia berezia eman nahi izan dio herritarrek uneoro prozesuaren inguruan informatuta egoteari eta sor litezkeen zalantzak argitzeko informazioa eta baliabideak eskaintzeari. Hori horrela, prozesuak iraun bitartean, informazio eguneratu eta zuzena eskainiko du Udalak komunikabide, udal-webgune eta energia bulegoaren bidez. Eta, horretan geratu barik, herrikideendako bilera informatibo irekiak antolatuta dituzte otsailaren erdialderako.

Merkaturatzaile berriaren sorrerarekin, urrats garrantzitsua egingo du Udalak Oñatiren burujabetza energetikoan eta energia berriztagarrietan. Horrela azaldu du Izaro Elorza Arregi alkateak: “Argindarraren kate edo zirkulu osoa herriratzeko urrats erabakigarria iragartzera gatoz, behingoagatik, argindar sortzailea, banatzailea eta merkaturatzailea kudeatzeko beharrezko dugun urratsa. Ziur gaude erabaki onuragarria dela Oñatirentzako. Egungo eta etorkizuneko erronkei behar moduko erantzuna ematearen adibide garbia da merkaturatzaile propioaren sorrera, eta posizio hobean jartzen du Udala herritarren behar energetikoei erantzuteko. Urrats honek, Oñati erreferente bilakatuko du energiaren alorrean”.

Apustu berria da energia merkaturatzailea sortzearena, alkatearen hitzetan, “oinarrizko zerbitzu bat herriratzeko beharrezko ekimena”. Gaineratu du ziurgabetasun energetikoko garaiotan, ziurtasuna Oñatiko baliabideen bitartez ematea dela asmoa, “espekulazio eremuetatik urrunduta, oinarrizko zerbitzuaren bidezko eskaintza erdigunean jarrita”. Merkaturatzaile berria erreminta bat izango da Oñatiko Ur Jauzietan sortutako energia berriztagarria herritarren etxeetan kontsumitzeko.

SAIO INFORMATIBOAK

Esan moduan, Udalak saio informatibo irekiak antolatuta dituzte herrikideentzako, merkaturatzailea sortzeko prozesuaren inguruko azalpenak emateko eta egon litezkeen zalantza eta ekarpenei erantzuna emateko. Saioak leku eta egun desberdinetan egingo dira, nahi duen herritar orok izan dezan bertaratzeko aukera. Gainera, beste bilera informatibo bat egingo da herriko komertzioentzako, horiek dituzten zalantza espezifikoei ere erantzuna emateko. Gonbidapen zuzena bidaliko zaie.

HERRITARRENTZAKO SAIO INFORMATIBO IREKIAK

- Otsailak 18 (asteartea), kultur etxean (18:30)
- Otsailak 19 (asteazkena), Eltzia 3. solairuan (18:30)
- Otsailak 20 (osteguna), kiroldegiko bilera gelan (10:00)

Merkaturatzaile berriaren sorrerarekin urrats garrantzitsua egingo du Udalak Oñatiren burujabetza energetikoan eta energia berriztagarrietan

Hala, alkateak esan du herritarrei energia %100 berriztagarria eskaintzea izango dela merkaturatzaile berriaren helburu nagusietako bat, eta urteetan argindar sektorean pilotutako esperientzia eta jakintzari esker, herritarrek eskatzen

duen arreta zuzena eta pertsonalizatua eskaintzen jarraituko dela, herritarren beharrak, gertutasuna eta gardentasuna oinarri. “Bide hau ez da bakarrik egiten. Oso urrats garrantzitsua da, erreferentea, berme guztiak eskaintzen dituen, denon artean egin beharrezkoa”, gaineratu du.

Informazioa jaso ondoren, herritarren unea izango da. “Garrantzitsua izango da norberaren merkaturatzailea edozein dela ere, bide honekin bat egitea, edo aukera aztertzea, gutxienez. Horrela lortuko du Oñatik dagokion energia eredua, %100ean berriztagarria den tokiko eredu demokratikoagoa, bidezkoagoa, orekatuagoa, iraunkoragoa...”, azaldu dute Udaletik

Oñatiko LGTBIQ+ errealitateen gaineko diagnostikoa egingo du Udalak

Oñatiko LGTBIQ+ errealitateen gaineko diagnostikoa egingo du Udalak aurten. Prozesu hau bideratzeko, *Sudergintza* kooperatibaren laguntza izango du udaleko Berdintasun arloak.

Diagnostiko honen bidez, herriko LGTBIQ+ errealitateen gaineko argazki osatu bat lortu nahi du Udalak, politika publikoen norabidea ezarri eta epe luze, ertain eta laburreko erronka eta lan ildoak ezartzen laguntzeko.

Horrez gain, baina, diagnostikoaren elaborazio prozesu honek herritarren bizipenak eta gogoetak partekatzeko espazioak eskaini nahi ditu. Memoria eta aitortza ariketa kolektibo bat bilatu, ikusgarritasuna handitu, erreferentziatzko eragile eta espazioak ikustarazi eta herriko LGTBIQ+ pertsonen arteko saretzea indartuz.



Udaleko eta Sudergintza enpresako ordezkariak

PROZESUAN PARTE HARTZEKO

Prozesuan parte hartzeko deia zabaldu nahi die Udalak herritarrei. Parte hartu nahi izatekotan, hauek dira harremanetan jartzeko bideak:

- LGTBIQ@onati.eus
- 688 621 213

Auzo-konpost gune berria Lizaur kalean

Inguruko zenbait bizilagunen eskaerari erantzunez, auzo-konpost gune berria, herriko zortzigarrena, egokitu du Udalak Lizaur kalean.

lazko urrian deialdia egin zuen udalak herriko plazatik beherako bizilagunen artean, auzo-konposta egiteko interesik ba ote zuten jakiteko, eta, hala izatera, kokalekuak proposatzeko eskatuz.

Interesa bazegoela ikusirik, konpost gune berria Lizaur kaleko jolas parkearen ondoan egokitzea erabaki zuen Udalak, inguruan bizi direlako interesa erakutsi duten herritar gehienak, eta hurbiltasuna delako halako azpiegituren arrakastarako faktore nagusietako bat. Kontuan hartu behar da, gainera, gune hauen mantenturako zerbitzua kontratatua duela



Udalak, eta, horrenbestez, funtzionamendu egokia bermatuta dagoela.

Gaur egun 200 familiatik gora egiten dute auzo-konposta, eta, poliki poliki, goraka doa kopurua. Gogoratu, auzo-konposta egiten dutenek %25eko hoberia dutela hondakinak biltzeagatik tasan, eta, gainera, bertan sortzen den konposta jasotzeko aukera daukatela, ongarri moduan erabiltzeko.

Lizaur kaleko auzo-konpost gunea erabili nahi duten herritarrek HAZ bulegoan edo udaleko egoitza elektronikoan eman dezakete izena.



HIRUMA marka turistikoa aurkezteko bideo ikusgarria

Debagoieneko, Urola Garaiko eta Urola Erdiko turismoa batera proiektatuko dituen marka turistiko berria da HIRUMA, eta Madrilen egin berri den Fitur Nazioarteko Turismo Azokan aurkeztu dute, 'Hiruma, Euskadiren arimara bidaiaria' lelopean.

HIRUMA euskal hiri-buruetatik hurbil dagoen gune berde pribilegiatua dela nabarmendu dute aurkezpenean; "euskal kulturaren arima ehuntzen duten baliabide naturalak, ondarea eta tokiko produktuak elkartzen diren gunea".

Aipatutako hiru eskualdeen arteko lankidetzaren 1997an hasi zen *Hiru Tenpluen Ibilbidea*-rekin; gero, 2006an *Inaziotar Lurraldea* marka sortu zuten, eta orain HIRUMA markaren aldeko apustua egin dute.



◀ HIRUMA
markaren
aurkezpen
bideoa

**Oñabike**

oñabike.com

Otadui 25, Oñati - Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



◀ Xabier Igartua eta Iñaki Olalde (udaleko Landa Garapena eta Euskara-Hezuntza batzordeetako buruak) eta Elias Zumalde (Emun Koop. Elk.) mapa toponimikoaren aurkezpenean

Oñatiko leku-izenen altxorra

> Herriko 2.855 toponimo biltzen dituen mapa digital interaktiboa egokitu du udalak bere webgunean

> Kontsultak egiteko ez ezik, ekarpenak egin edota leku-izen berriak proposatzeko aukera ere ematen du

Herriko mendi, muino, baso, erreka, iturri, borda eta beste-lako tokien 2.855 toponimo edo leku-izen biltzen dituen mapa interaktiboa ipini du Udalak bere webgunean (www.oñati.eus) herritar guztien eskura. 'Udala' atalaren barruan dagoen 'Mapa interaktiboa' fitxan sartu eta 'Toponimia' botoian sakatuta aurkituko dugu mapa toponimikoa.

Maparekin batera, bilatzaile bat ere egokitu dute bertan, kontsultak erraz egin ahal izateko. Hala, bilatzailean letra edo hizki batzuk idatzi ahala, toponimoen zerrenda bat agertuko zaigu, bakoitza zein auzotan dagoen ere esango digu, eta horietako batean klik eginez gero, mapan duen kokalekura eramango gaitu. Mapan gaudelarik, leku-izenaren gainean sakatzeko badugu, fitxa bat azalduko

zaigu pantailan, toponimo horri buruzko informazioarekin: zein motatako elementu geografikoa den, zein auzotan dagoen, ahaz nola esan ohi den...

Fitxa horietako bakoitzean ekarpenak egiteko aukera ere badago ('Ekarpenak egin' botoian klik eginda), toponimo edo leku-izen horren inguruko informazioa osatu edota egon litezkeen akatsak zuzentzeko. Gainera, jaso gabe geratu diren toki-izen berriak proposatzeko aukera ere ematen du 'Toponimia proposatu' atalean sartuta.

Izan ere, horixe baita Udalaren asmoa, alegia, mapa interaktibo hau bizirik mantentzea, ekarpen berriak jasotzea eta, poliki poliki, denon artean herriko toponimia osatzen eta aberasten joatea. "Mapa hau herritarren eskura jartzea lagungarria izan daiteke

herriko etxe eta baserrietan leku-izenei buruz berba egiteko, eta animatu ditzake herritarrek ekarpenak egitera. Aldian-al-dian mapa osatu eta eguneratu egingo dugu jasotzen ditugun ekarpenekin", adierazi du Xabier Igartuak, udaleko Landa Garapena batzordeko buruak.

LAN KOLEKTIBOA

Udalak prestatu duen mapa toponimiko honen oinarrian aurretik beste zenbait erakundek eta herritarrek egindako lana dago. Hala, 80ko hamarkadaren hasieran Joxe Angel Idigorasek, Aranzadi elkartearekin elkarlanean, Oñatiko 1.705 leku-izen jaso zituen. Ondoren, 90.eko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, Deustuko unibertsitateko lantalde batek, tartean Amaia Erostarbe zela, beste 977 toki-izen batu zituen. Eta azken bi urteotan, Oñatiko udalaren enkarguz, Elias Zumaldek (Emun koop. elkarte) jardun du orain arte jasota zeuden toponimoak gainbegiratu, kontrastatu eta izen berriak gehitzen —173 leku-izen berri bildu ditu—, auzorik auzo egindako bilerekin esker.



▲ www.oñati.eus webguneako 'Udala' atalaren barruan dagoen 'Mapa interaktiboa' fitxan sartu eta 'Toponimia' botoian sakatuta aurkituko dugu Oñatiko Mapa Toponimikoa

"Hau ez da ezeren amaiera. Mapa toponimikoa bizirik mantendu nahi dugu eta, beraz, animatu egin nahi ditugu herritarrek mapan saltseatu eta ekarpenak egitera, denon artean osatu eta aberastu dezagun"

Bilera horietan parte hartu duten herritar guztiei esker eman ostean, aurretik eginda zegoen lan handia goraiatu zuen Zumaldek, lan kolektibo baten emaitza dela azpimarratuz. Ildo horretan, ez da ahaztu behar, Kandido Izagirre, Luis Villasante, Bitoriano Gandiaga, Nikolas Zumalde, Felix Ugarte eta Jerardo Elortzak ere, ekarpen garrantzitsuak egin zituztela bere garaian.

Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko buru Iñaki Olalde ere esker ona adierazi zien proiektu honetan lagundu duten herritar guztiei. "Uste dugu oraintxe zela momentua lan hau egiteko, zorronez gure arbasoengandik iritsi zaizkigun leku-izen horiek ezagutzen dituzten herritarrek gure artean ditugulako oraindik, eta orain jaso ezean, altxor hori galtzeko arriskua zegoelako".

Edozein modutan, Zumaldek azpimarratu egin zuen hau ez dela ezeren amaiera, oraindik lan asko dagoela egiteko, eta animatu egin zituen herritarrek Udalak egokitu duen mapa toponimiko digitaallean sartu eta saltseatzera, eta ekarpenak eta proposamenak egitera, poliki poliki denon artean aberastu eta osatu dezagun Oñatiko leku-izenen altxorra.

TOPONIMO BERRIETAKO BATZUK

Elias Zumaldek (Emun) jasoak

ARAOTZ

- Kazparrena (abelbidea)
- Lezaalde (aurkintza)
- Mintazar (tokia)
- Itaikarri (tokia)
- Itxundui (tokia)

ARANTZAZU

- Egikolatza (arroatza)
- Txindormendi (tontorra)
- Artxindako koba (koba)

BEREZAO

- Otsueizabal (aurkintza)
- Untxaurtxueta (aurkintza)

GARAGALTZA

- Lapatxategi (aurkintza)

LARRAÑA

- Bustinzuriburu (aurkintza)
- Erraitza (aurkintza)
- Larruko erreka (erreka)
- Loragaztañeta (aurkintza)

LEZESARRI

- Patxikugaztañeta (tokia)
- Urkamendi (mendia)

OLABARRIETA

- Epilezpilleta (bidea)
- Margiña (soroa, alorra)

SANTXOLOPEZTEGI

- Armitegiturria (iturria)

URIBARRI

- Aintzumaizabal (aurkintza)
- Aitzibar (haitza)
- Billosoro (bidegurutzera)
- Kokosoro (larrea)
- Lizarbikutz (aurkintza)

URREXOLA

- Arraskilleta (aurkintza)
- Goinbizkar (hegia)
- Lasarteko iturria (iturria)
- Nardazar (aurkintza)

ZUBILLAGA

- Legarزابal (aurkintza)
- Lepaiturri (iturria)
- Urrixkate (aurkintza)



Joxe Angel Idigoras, 1983an erabilitako mapekin

"Oso lan aberasgarria izan zen niretako. Asko ikasi nuen."

> Oñatiko toponimoen lehen bilketan parte hartu zuen Joxe Angel Idigoras, 1983an. > 1.705 leku-izen jaso zituen eta mapetan kokatu, eskuz.

'Gipuzkoako leku-izenak' egitasmoaren baitan, 1983an egin zen Oñatiko toponimoen lehen bilketa saioa, Aranzadi Zientzia Elkartearen gidaritzapean, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Horretarako, Gipuzkoako mapa topografikoa 1:5000 eskalako ia 300 mapa-orritan banatu zuten, eta orri bakoitzeko 50 bat toponimo jasotzea ipini zuten helburutzat. Fermin Leizaola etnologoak gidatu zuen egitasmoa, eta Oñatiri dagokionez, batez ere Joxe Angel Idigorasek jardun zuen informazioa batzen. "Aita Arrieta frantziskotarrak jaso zituen Arantzazuko leku-izenak, Leizaolak berak Araozkoak, eta nik gainerako auzoetakoak", azaldu digu Idigoras.

Hiru urtez luzatu zen egitasmoa, eta Idigoras 1.705 toponimo batu zituen, auzorik-auzo eta baserriz-baserriz galdezka ibilita. "Mapa eskutan hartu, proiektuaren nondik norakoak azaldu, eta inguruko mendi, muino, erreka, zelai eta bestelako leku-izenez galdetzen nien. Toponimo bakoitzeko fitxa bat betetzen nuen (lekuaren izena, ezaugarriak, koordinadak, informatzailearen izena...), eta gero, etxean, toki-izen bakoitza mapan kokatzen nuen, ahalik eta txukunen".

Gerora, Arantzazu auzoko toponimia ere Idigoras berak jaso zuen, Arrietak bildutako informazioa galdu egin zelako fraidea Durangora joan zenean.

Lan handia izan zen, baina oroitzapen polita du Idigoras. "Nik asko ikasi nuen eta oso aberasgarria izan zen niretzat. Azken batean gure arbasoengandik jasotako ondarea da eta herritarrei dagokigu hori jaso, zaindu eta hurrengo belaunaldiei transmititzea".

Pozik ikusi du Udalak webgunean eskegi duen mapa toponimikoa. "Ahalmen handiko tresna da, oso erabilgarria; kontsultak egiteko, ekarpenak... Oso barrutik bizi dudana gaia da, eta ez da beti zuzen erabiltzen. Adibidez, *Biozkornia eta Akaitz* arteko guneari *Oraota* deitzen zioten lehengoek, han ibiltzen ziren artzainek ondo dakiten moduan, baina tontorrean buzoia ipini zutenean *Arriurdi* izena jarri zioten, eta hori *Biozkorniatik* behera dagoen saroi baten izena da. Eta halako gehiago ere badira".

Emakumion etxia eraikitzen

PARTE-HARTZE PROZESUA
CONSTRUYENDO LA CASA DE LAS MUJERES
PARTICIPANDO EN EL PROCESO



Elkarren berri jakin eta aurrera begirako erronkei heldu die parte-hartze prozesuak

Urteko lehen bilera orokorra egin du Emakumion Etxia Eraikitzen parte-hartze prozesuak. Taldeka banatu garenetik, lehenengo izan da eta balio izan du talde ezberdinak nondik abiatu garen ezagutzeko eta aurrera begira jarritako erronka eta etxekolanak elkarbanatzeko.

Lehenengo pausotan dabilta taldeak, irizpideak zehazten, norabideak finkatzen... Programa zehazten dabilzan **Programatzaileek**, esaterako, xede-taldeak eta ildo estrategikoak ezagututa, etxeko egitaraua herriko gainerako eragile eta ekintzekin nola harremanduko den pentsatzen dihardute, kolektibotasuna eta boteretzea sustatuz, etxeari ikusgarritasuna eman nahi diote, espazio publikoa hartzeari uko egin gabe.

Etxearen eta etxetik kanpokoaren arteko harremanak eraikitzen dabilta **Zubigileak**, eta pasa den urtearen bukaeran herrian zabaldutako galdetegiaren erantzunen berri eman zuten. 80 erantzun jaso dira, gehienak zalantzak galdetuz edo proposamenak eginez, ea zer egingo den etxean, nori zuzendua dagoen... Datozen asteetan zalantza horiek argitzeko bideak topatzeari ekingo diote.

Etxearen inguruan sortu daitezkeen dinamika eta iniziatibak aurrera eramateko, **Saltserak** leudeke. Etxeak emango die horretarako tarterik, baina bitartean ere badute ekarpena non egin. Martxoaren 8ari begira jarri dira momentuz.



Urtarrilaren 18an burutu zen batzar orokorreko irudia

Bestalde, luzerako begiradarekin, ideia berriak, eztabaidak eta deserosotasunak mahaigaineratzeko lanean dabilta **Bisionariak**. Talde honetan udal ordezkariak ez egotea erabaki da eta orain **Etxekoandre** eta **Bidelagun** rola definitu eta teorizatzeke erronka hartu dute. Emakumeen etxeak izango duen izena zehazteko beharra ere ekarri zuten talde zabalera, eta lanketa hori nola egin proposatuko dute.

Azkenik, etxearen antolaketaz eta baliabideez pentsatzen dabil **Gobernante** taldea: plangintza osatzen dabil, batetik; bestetik, gogoetan dihardu nola antolatuko den, arautegirik beharko duen eta, zentzu horretan, formazio pilula bat proposatu dute: "**Talde-antolaketa horizontala: Soziokrazia eta beste eredu batzuk**", Aise Kooperatibaren eskutik.

LAN TALDEEN HURRENGO BILERAK

Lan taldeen hurrengo hitzorduak hauek izango dira:

Programatzaileak	otsailak 10 - 17:00	Gobernanteak	otsailak 13 - 17:00
Zubigileak	otsailak 17 - 17:00	Bisionariak	martxoak 3 - 17:30
Saltserak	otsailak 4 - 17:00		

Parte hartzeko jarri gurekin harremanetan:
berdintasuna@onati.eus / 688 621 213

Taldeetako parte-hartzea irekia da, ANIMATU!



Gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin berdintzea eskatzen dute pentsiodunek

> Pentsiodunen Mugimenduak **Herri Ekimen Legegilea** aurkeztu du legebiltzarrean, gutxieneko pentsioak osatzeko 'euskal sistema' bat eskatuz > 10.000 sinadura behar dituzte

"Euskadin, hiru pentsiodunetik batek Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) baino diru-sarrera txikiagoak ditu, eta horietatik %70 emakumeak dira. Gehienek 850 euro baino gutxiago jasotzen dituzte hilean, eta hori ez da duintasunez bizitzeko behar bestekoa", Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) adierazi duenez.

Horregatik, pentsiodunen mugimenduak Herri Ekimen Legegile bat aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean, pentsio minimoak osatzeko 'euskal sistema' bat garatzeko eskatuz. Zehazki, gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin berdintzea eskatzen du pentsiodunen mugimenduak, Europako Gutun Sozialak (diru-sarreraren nahikotasunari buruz) ezarritako irizpideen arabera. Gogoratu, Espainiako LGS/SMIa 1.134 eurokoa dela, hamalau ordainketetan banatuz gero. "Hala ere, Eusko Legebiltzarrak EAerako beste gutxieneko soldata bat onartuko balu, pentsioen osagarria kopuru horretara egokitu beharko litzateke", adierazi du EHPMk.

Horrez gain, EHPMk eskatzen du pentsioen osagarria modu indibidualizatuan aplikatzea pentsio-jasotzaile bakoitzari, bere bizikidetzaren unitatea edozein delarik ere.

"Izan ere, pentsioen osagarria bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera baldin bada, normalean emakumea zigortzen da, eta sostengatzaile maskulinoa eta mendeko bikotekidea dituen familiaren kontzeptua bultzatzen da, errotik kendu beharrekoa", azaldu dute.

SINADURA BILKETA

Eusko Legebiltzarreko arauen arabera, Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak gutxienez 10.000 sinadura bildu behar ditu lege-proposamenak aurrea egin eta Gasteizko legebiltzarrean eztabaidatua eta bozkatua izan dadin. Eta horretan ari dira pentsiodunak, herriz-herri. Oñatin, esaterako, 600 sinaduratik gora batzeko helburua dute. Apirilaren 24ra arte egingo dute bilketa.

"Zazpi urteko borrokaren ondoren, mobilizazio sozialak emaitzak lortzen dituela erakutsi dugu", adierazi dute Euskal Herriko pentsiodunek eta, ildo horretan, dei egiten diete 18 urtetik gorako pertsona, langile, pentsiodun, emakume, gizon eta gazte guztiei lege-proposamen honen alde sinatzera, "bidezkoa, beharrezkoa eta premiazkoa" delako. Oñatin, astelehenero (12:00) Foruen plazan egiten duten elkarretaratzean sinatu daiteke.



'OPORRAK BAKEAN'

Harrera familiak behar dira udan haur sahararrak Oñatira ekartzeko

Uztaila eta abuztuan Tinduf-eko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren haur sahararrak Euskal Herrira ekartzea xede duen 'Oporrak bakean' ekimena abian da aurrean ere, 'Esperantzari leiho bat' lelopean.

8-12 urteko neska-mutikoek parte hartzen dute programan, eta hemengo egonaldia oso lagungarria gertatzen zaie, beste errealitate bat ezagutu eta gozatzeaz gain (igerilekua, itsasoa...) osasuntsu elikatzeko aukera dutelako hilabete horietan.

Iaz bost haur etorri ziren Oñatira, beste bat Bergarara, eta harrera-familia horiek herritar gehiago animatu nahi dituzte haur sahararrak etxean hartzera. Haurren bidaia gastuak 'Oporrak bakean' programaren kontura izaten dira —Oñatiko udalak ere laguntzen du; iaz 3.160€ bideratu zituen programa honetara—.

'Oporrak bakean' programan parte hartzeko izen-ematea **martxoaren 15era** arte dago zabalik. Informazio gehiago: <https://oporrbakean.eus> (Oñatin, 675 702 747 telefonora —Laida— deitu daiteke informazioa jaso edota zalantzak argitzeko). Gogoratu, harrera-familia bakoitzeko haur bat gutxiago egongo dela udan basamortuan, 50 graduko bizi-baldintza gogorretan.



Iñazio Irizar eta Joxe Angel Urkia, Pake Lekuko Internet taldeko kideak (Arg.:Anabel Dominguez)

Pake Lekuko Internet taldeak euskal Wikipedia elikatzen jarraitzen du

> Iaz 800 artikulua berri argitaratu zituzten, 711 orrialdeko liburukia osatzeko adina

Pake Lekuko Internet taldeak eta, bereziki, bertako kide aktiboenak diren Iñazio Irizar eta Joxe Angel Urkiak, lan isila bezain aberatsa egiten jarraitzen dute euskarazko wikipedia elikatu eta aberasteko helburuarekin. Hala, iazko urtean 800 artikulua argitaratu zituzten —kasu batzuetan lehendik zeudenak garatuta—, 711 orrialdeko liburu mardul bat osatzeko adina, eta 3.000 inguru erreferentzia jasoz.

Iaz landu eta argitaratutako edukien artean Oñatiarekin zerikusia duten lau artikulua luze eta sakon daude: 'Resurrección Maria Azkue eta 1918ko Oñatiko kongresua' —bertan sortu ziren Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza—, 'Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea', 'Oñatiko Corpusa' eta 'Oñati udalerrria'.

Artikulu horietan aurkituko dugu lau gai horien inguruan gaur arte idatzi den ia guztia. Unibertsitate zaharrari dagokionez, esaterako, 1990. urteko ikasle guztien izenak eta jatorriak ere jaso dituzte.

Arlo batean edo bestean nabarmendu diren beste zenbait oñatiarri buruzko artikulua ere idatzi dituzte, hala nola: *Antonino Ibarondo, Manuel Umerex, Antonio Elorza, Mariano San Migel, Iñaki Zumalde, Migel Angel Arzuaga, Eli Galdos, Angel Iturbe, Andoni Gartzia eta Lourdes Idoiaga.*

Oñatiarrenak ez ezik, nazioarteko beste pertsonaia eta erakunderi buruzko artikulua ere landu dituzte; tartean dira, *Jose 'Pepe' Mujika eta Lucia Topolansky* politikari eta aktibista uruguaitarrak, F.

» *Animatu egin nahi ditugu herritarrek Pake Lekuko Internet taldean parte hartzera. Norberak erabakitzen du zertaz idatzi eta zenbat denbora eskaini.*

Scott Fitzgerald idazle estatubatuarra, eta *Stanford* unibertsitateari (Kalifornia) buruzkoak.

Horiez gain, naturari buruzko beste hainbat eta hainbat artikulua motz ere sareratu dituzte Pake Lekuko wikilariek: *perretxikoak* (671), *arrainak* (17), *hegaztiak* (32), *ofidioak* (24), *narrastiak* (9), *satorrak* (4), *karraskariak* (10), *muskerrak* (8) eta *sugandillak* (6). Beheko QRan ikus daiteke zerrenda osoa.

HERRITARREI GONBITA

Erretiroa hartzearekin batera hasi ziren Irizar eta Urkia euskal wikipedia elikatzen. "Munduko entziklopediarik handiena da *Wikipedia*, dohainik kontsultatu daitekeena, eta uste dugu inportantea dela euskarazko wikipedia ahalik eta osatuena egotea. Euskarari laguntzeko modu bat da", diote.

Eta horretan jarraitzeko asmoa dute, baina beste herritar batzuk ere animatu nahi dituzte Pake Lekuko Internet taldean parte hartzera. "Oñatin jende asko dago gai ezberdinen inguruan idazteko gai dena. Teknikoki ez da zaila artikulua argitaratzea. Geuk lagunduko diegu, eta, gero, norberak erabakitzen du zertaz idatzi eta zenbat denbora eskaini. Ez dago inolako obligaziorik".

"Norberarentzat ere pozgarria omen da zeuk landutako gai bat sarean ikustea eta edonorentzat lagungarria gerta daitekeela jakitea. Norberaren denbora libreari balio bat emateko modua da, zeure gustuko gaiak landuz eta gauza berriak ikasiz", adierazi dute. Ostiraletan (10:30-11:30) elkartzen dira Pake Lekun.



Naturari buruzko artikulua guztiak ikusgai hemen

 **ARKITEKTURA**

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

JUANJE MARGOAK

627 818 247



“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

ZUNTZA 500 Mb
+ MUGIKORRA 50 GB ⁵⁰

34,90 €/HIL
EEZa berriz
Guzuzkako
berriz


Eta dohainik eraman aire
bidezko TRISTAR frijigailua
edozein mugikor + zuntza tarifa
kontrataturaz

**KONTSULTA ITZAZU
ESKAINZA BERRIAK DENDAN**

PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



EEZa berriz. Eskaintza balioak izango dira 2025eko azialaren 1etik azialaren 31ra arte kontratatzean: 500 Mb-eko zuntza + 50 GB-ko mugikor-linea (35 GB-ko tarifa + 15 GB-ko bonua) del mugagabekin Hilar 34,90 €-an. 22€/90 €-ko deskontua instalazioan, 3 Hilebeteko iraupen-konpromisoarekin. BG-akabaketa, eskaintza eta BG-terminakel kontu. Buzi gainerako baldintzak haren: HYPERLINK "<http://www.masmovil.es>"www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlanean izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erstarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna (Itten bat) eta Gaztelekua (Arazerixan)

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

ANGEL FERNANDEZ GOGOAN

Beñat Ugalde (Kontseilu Sozialistako kidea)

Otsailaren 3an 42 urte beteko dira Angel Fernandez heriotzatik, nor izan zen Angel ordea? Bada, Angel Oñatiko militante politiko bat izan zen, langileriaren historian beste askok eta askok egin bezala, bere ekarpena egin ziona borroka iraultzaileari.

80ko hamarkada hasieran, giro politikoa bero bero zegoen, eta garai haietan nabarmendu zen gure herrian Angel. Oñatiko lehen gaztetxea lortu zutenean bertan lan mardula egin zuen beste askorekin batera. Garai haietan, borroka ekologistan eta mugimendu antinuklearrean ibili zen eta Euskadiko Mugimendu Komunistako militante ere izan zen. Azkenik, Iraultza taldera pasa zen eta ekintzetara jauzia eman zuen. Ekintza horietako batean galdu zuen bizia zorritzarekin.

Militante konprometitu eta langilea zen, jendearekin egoteko eta arazoak ulertzeko zeukan gaitasuna nabarmendu digute bere gertukoek. Baita marrazteko abilezia ere, ekimen desberdinetako kartel zein dekorazioak diseinatzen lan handi eta ederra egin baitzuen. Urteak aurrera joan arren, haize eta euriak ez dute ezabatu Angelen arkupea markatzen duen plazako marrazki txikia, eta Angelen memoriak bizirik jarraitzen du bere ingurukoengan.

Hau horrela izanik, guk ere Angelen memoriari keinu txiki bat egin nahi diogu, lerro hauetatik hasita. Militante iraultzaile gisara aitortza politikoa egitea beharrezkoa dela uste dugu. Jardun politikoarekiko izandako konpromezu eta grina aitortzea, ikusaraztea eta bertatik ikastea.

Angel eta beste militante askok egin bezala, eguneroko lanari konpromezuz eta gogoz heltzea beharrezkoa dela ikusten dugu. Eta horretan jarraituko dugu guk, inolako zapalkuntzarik eta klaserik gabeko gizarte baten alde egiten. Izan ere, hau da militante iraultzaileen memoriari egin dakioken ekarpenik onena, nostalgia hutsean erori gabe, egunez egun lanean jarraitzea.

"SALAM ALAYKUM!"

Felipe Uriarte

Salam alaykum alai batez agurtzen dut samagarrebaren etxera lan egitera egunero etortzen den Jabila aljeriar emakume gaztea. Aurpegia argitzen zaio, eta esker oneko irribarre zabal batez erantzuten dit: Alaykum salam! Semealabak dagoeneko ongi moldatzen dira euskaraz; Jabila, beti lanean, gogorik bai, baina ez du oraindik hizkuntzari indarrez hartzeko astirik izan.

Tipulak, porruak, kuraitxoak erostera joaten naizenean, atetik sartu eta "Salam" ozen batez agurtzen dut Naiknam Karim Islamabadeko dendari pakistandarra. Ismailita izanik, musulmana xiita hain xuxen, "Salam" erantzuten dit, ismailitek ez baitute *salam alaykum* hori erabiltzen. Ordaintzerakoan "hogeita zazpi berrogeita bost" adierazi dit, euskara garbian. Pozik ordaindu diot, eta nire agurrari "hurrengo arte" batez erantzun dit. Alai eta itxaropenez lepo ateratzen naiz beti Naiknamen dendatik.

Boli Kostakoa da Musa. Bost bat urte dira Oñati aldera saltzaile etortzen ari dela. Poltsak, guardasolak eta mota askotako galtzerdiak saltzen diyu. Elkar ezagutu genuenean, euskal ikurrina duten galtzerdiak luzatu zizkidan. Galtzerdietako ikurrinak ikusi, eta barre txiki bat ezpainetan, begirada galtzerditik Musarengana itzuli nuen. Nire begiradaren zain nituen haren begiak.

"Egun on", agurtu ninduen. Ez dizkiot beti ikurrina duten galtzerdiak erosten, baita ikurrinik gabekoak ere. Nire gogoko tabernan eserita baldin banago, esertzera gonbidatzen dut. Txakolina nik, kafesnea eta palmera bat berak.

- Zer moduz Musa?

- Oso ondo, eta zu? – Musak. Mandinga da bere mintzaira, baina frantsesez ere hitz egiten du.

Duela gutxi, adeitasun handiz irakurri dut *Kontzejupetik* aldizkariari buruzko proposamena: gaztelerazko idatzaldia eskuragarri jartzea *online*. Di-da bateko hausnarketa baten ondoren, ez da zaila ikustea aldizkariak herriko berriak



plazartzeaz gain, beste hainbat onura ere eskaintzen dituela.

Euskaraz izateagatik, euskaraz irakurtzen ez duten oñatiar euskaldunei aukera ematen die bere hizkuntza propioan irakurtzeko. Bere bizitza osoan Atxaga edo Sarrionaindia euskaraz irakurriko ez duten oñatiar petoei herriko gertakariak euskaraz irakur dezaten eskaintzen zaie. Garrantzitsua da euskararen normalizaziorako, oinarrizko eskaintza izanagatik.

Eta nolako onura eskaintzen die oñatiar erdaldunei *Kontzejupetik* euskara hutsean izateak? Ñiminoa dirudien arren, euskara komunikaziorako baliagarria dela ikusiko dute erdaldunek, eta aldizkariak komunikazio-gune bat sortzen duela, non herriko gai ezberdinak jasotzen diren.

Oker ez banaiz, gaur egun %12,2

emigranteak dira Oñatin; kopuru indartsua, kontutan hartu beharrekoa. Eta, zenbaki horri begira, aldizkaria tresna barneratzaile eraginkorra izan liteke.

Zenbaki horrek ematen digun lehenengo berria da, Oñatin erdara bat baino gehiago hitz egiten dela. Eta horra hor aipatutako proposamenaren lehenengo akatsa, barneraketaren (inklusioa) arazoari heltzen baldin badiogu. Gazteleraz eskainiz gero, kanpoan uzten ditugu beste erdal hitzunak, pakistandarrak, marokorak, aljeriarrak, boli-kostarrak; eta okerragoa dena, gaztelerara zuzentzen ditugu horiek guztiak, eta ez euskarara.

Euskararen normalizazioaren aurkako norabidean hain xuxen. Era horretan *Kontzejupetik*-en bitartez, erdaldun guztiak gaztelerara bideratuz. Euskara izan beharrean, gaztelera

ardatz bihurtuz emigratzaileen barneraketarako.

Ba daude aukera ederrak *Kontzejupetik* tresna barneratzaile egoki bihurtzeko. Oñatin hitz egiten diren erdara guztiak kontuan hartzea. Txandaka, paperezko zein *online* aletan, erdara guztiak agertzea. Poesia, beraien ipuinak, beren herriko ohituraren bat, erdaldun horiek idatzirik, beren hizkuntzan eta grafian, eta ondoan euskarara ekarrita. Horra hor lan zoragarria.

Euskararen gaia nazio gaia denez, norberaren alderdiaren ikuspegitik alde egin behar dugu, eta bi estatuengandik burujabe den hizkuntza-politika boteretsua behar dugu. Gaur egun, Euskal Herriko hiru zatietan burutzen ez dena. Hizkuntza-politika burujabea, utopiaz, poesiaz eta ausardiaz bustiz gero, horra hor bide eraginkorra.

» OHAR ETA DEIALDIAK «



Presoen aldeko zozketan saritua

Preso eta iheslarien alde Gabonetan egin ohi den zozketan 2377 zenbakia atera da saritua. Ana Bodesek zeukan txartel hori eta berak jaso zuen saria, Gabon saski ederra, argazkian ikusten den moduan. Eskerrik asko zozketan parte hartu duten guztiei.

'Liluraren kontra. Trantsizio geopolitikoaren argi-ilunak'

SOLASALDIA 'Liluraren kontra. Trantsizio geopolitikoaren argi-ilunak' liburua aurkeztera etorriko da Martin Arbo (Durango, 1966) **martxoaren 5ean** (kultur etxean, 18:30), Oñatiko EH Bilduko gonbidatuta. "Mundua abiada bizian aldatzen ari da; gaurdaino ezagutu dugun nazioarteko ordena hautsi egin da. AEBen hegemonia gainbehera da, eta orain arte izan duen nagusitasuna beste herrialde batzuek lehiatzen diote. Trantsizio geopolitiko abian da, edo, beste modu batera esanda, munduko boterearen birbanaketa fase sakonean murgilduta gaude. Gainera, mendebaldearen dekadentzia prozesu horri krisi ekologikoa batu zaio; krisi bikoitza krisi bakarrean. Arriskua argia da: gerra bilakatu daiteke gatazka horien guztien soluzio".



Silioko (Kantabria) maskarada

SOLASALDIA Oñatiko Inauteri taldeak antolatuta, Silio herriko (Kantabria) maskaradei buruzko hitzaldi-solasaldia egongo da **otsailaren 28an** (Santa Ana antzokian, 19:00). Inauteri ikusgarria izaten da. Urtarrileko lehen igandean ospatu ohi da eta mozzorro harrigarri eta ederrez beteriko festa erraldoia izaten da. Hitzaldia gazteleraz izango da.



 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Bereaz Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SILIO DE ALTZARIAK • ALTZARI BUSTIKOAK • MEHURRA ENPATRIKORIKO ALTZARIAK	

 Ingeleseko Akademia Listening Speaking Reading Writing	Maite Aiestui Kortabarria Irakaslea Arantzazuko Ama, 3 behea 943 53 36 57 20560 OÑATI (Gipuzkoa) 4sgoiena@gmail.com www.4sgoiena.com
--	---



Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> OÑATIKO GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO 2024ko DIRU LAGUNTZEN DATUAK <<

2024an ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, Oñatiko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du, eta berriro ere 35 urte arteko herritarrek eskatu ahal izan dute. Aipatzea laguntza hauen xedea ondorengoa dela: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko herritarrei etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea. Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, gazteak alokairuko etxebizitzaren erabiltzaile nagusi diren neurrian, pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, beste urte batez (eta badira 10), emantzipaziorako diru-laguntzak banatu ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak.

Aipatzekoa da azkeneko urtetan eskaera kopurua nahiko egonkortuta dagoela, are gehiago apurka apurka eskaera kopurua gutxitzen ari dela. Dena den, aurten ere 33 eskaera jaso dira. Kontuan izan behar dugu Eusko Jaurlaritza kontzeptu berdinean ematen ari den *Gaztelagun* izeneko diru-laguntza ere hor dagoela, eta diru sarreren arabera gure gazteek Eusko Jaurlaritzan diru-laguntza eskatzera behartuta daudela. Gauzak horrela, kontuan izan behar da urtero gure eskaera asko Eusko Jaurlaritzara bideratu beharrean aurkitzen garela, eta aurten ere 11 gazte bideratu ditugu (5 neska eta 6 mutil). Zein da honen irakurketa? Ba *Gaztelagun* programa eta Oñatiko dirulaguntzen artean etxebizitza emantzipazioa lortu duten gazteen multzoa oso handia dela, eta argi dagoela Oñatiko gazteen artean diru laguntza hauek egonkortuta daudela, bata zein bestea, horiekin kontatzen dutela, eta euren emantzipazioan duten eragina nabarmena dela. Horrela, dirulaguntza hauekin aurten ere Oñatiko Udalak 35.000€ baino gehiago banatu ditu herriko gazteen emantzipazioari begira.

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, azkeneko urteetako norabidearen kontra, nesken eskaera-kopurua txikiagoa izan da mutilena baino. *Gaztelagun* eta Oñatiko udaleko eskaera kopurua batuta 18 neskek eskatu dute eta 26 mutilek.

Gauzak horrela, laburbilduz, berriro ere Oñatiko Udaleko Gazteria sailaren izenean irakurketa oso positiboa egin beharrean gaudela esan beharra dago. Are gehiago, bere egunean egindako parte hartze prozesuan gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari garelako, eta ahal dugun neurrian Oñatiko gazteen ongizatean zuzen eragiten gainera.

Hori dela eta, jakin dagoeneko 2025erako deialdi berria martxan jarri dugula, eta otsailean zehar aurtengo diru-laguntzak eskatzeko epea zabalduko dela!

Horretaz gain Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen *Emantzipa* programaren berri ere eman nahi dizuet, 25 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendutako diru-laguntza da, eta printzipioz *Gaztelagun* programarekin zein Emantzipaziorako udal diru-laguntzarekin uztargarriak dira

Ion Lopez Santamaria,
udaleko Haur eta Gazteria teknikaria

» LAGUNTZA HAUEN XEDEA HAUXE DA: OHIKO EGOITZA IZATEKO ALOKAIRU ERREGIMENEAN ETXEBIZITZA BAT DUTEN 18-35 URTEKO GAZTEEI ALOKAIRU GASTUEN ZATI BAT ORDAINTZEA

» AURTEN ERE 33 ESKAERA JASO DITUGU, ETA BESTE 11 BIDERATU DITUGU EUSKO JAURLARITZAREN 'GAZTELAGUN' PROGRAMARA.

» UDALEKO GAZTERIA SAILAREN IRAKURKETA OSO POSITIBOA DA, GAZTEENGANDIK JASOTAKO ESKAERA BATI ERANTZUTEN ARI GARELAKO

» OTSAILEAN ZEHAR IREKIKO DUGU 2025eko DIRU LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA

AGENDA

- Otsailak 7, Txotxongilo tailerra + mikroipuinen ikuskizuna, Txaloka ludotekan
- Otsailak 8, Ping pong txapelketa, Gaztelekuko Kuboan
- Otsailak 15, Dantza lehiaketa, Gaztelekuko Kuboan

Aixotu aditzaren jatorrixaz



Sarda baten armazoia, bere bi hortz eta hiru aizkora atzian dittuela.



J. M. Andueza aproposoko ara-etxe batian erdiko bi hortz nagusixak nun oiazen irakusten



Ara-hortzak



Laixa bat eta bi aizkora

✍ ROBERTO ALTUNA

Orain dala hirurogei, hirurogeita hamar urte arte oso ezagunak ziran zenbait lan eta lanabes gaur egun gehixenetan ezittugu imajinau be egitten, eta ebalten ziran berbak ziharo ahaztu dira, holako bat da burdingintza alorreko **aixotu** berbia. Geure herrixan ebalittako berbia edo, zihatxago esanda, aditz bat da, aitta Kandido Izagirreraren hiztegixan jaso zana lehenengoz Begirolatzako (Bellotzako) Klaudio Zurutzari eta Soroandietako Pedro Urzelairi entzunda. Eta hori XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkada hasieratik hirurogeiko erdi ingurura bittartian izan zan, ze aitta Villasantek liburuaren sarreran dixuenaz, Izagirre 1952xan hasi zan jasoketa lanetan eta hamabost urtian jardun eben zeregin horretan. Harrezkero berba hori errementariaren batek edota baserriren bateko aittajaunen batek gordeko eben, baiña gaurko egunian, gure ikerketa laburraren arabera, iñork eztau ezaguketan, eta ondorioxoz, nobedaderik ezian, galdutzat edo desagertutzat emun geike bere ebalera tradizionalian behintzat. Gaur **aixotu**-ren ordez, 'arreglau', 'konpondu' edo 'baserriko zorroztura egin' berbak jaso dittugu.

Aitta Kandidoren hiztegixan datorrenari segiuz **aixotu**, **aixoketia** hauxe da: *afilar el hacha, etc, con el martillo después de ponerla candente, pero sin acerarla de nuevo.*

Eta **aixotu**-ren jatorrixa topau guran, Orotariko Euskal Hiztegiak hauxe diosku: **aixotu**. ik. **adiutu**. Eta honen bigarren adieran: **aiutu** (V-Gernika-Plentzia-Arratia), **aiotu** (V-Gernika-Plentzia-Arratia-Orozko-Markina). Iz ArantzazuOñati (**aixotu**). Ref.: "Afilan una herramienta calzándola" Azkue (aiutu, aiotu).

Eta **adiutu**, berriz, iñundik etorrienen latiñetik etorri bihar dauela emuten dauenez, latiñezko hiztegiara jo eta hara nun argibide honekin topo egitten dogun: **Adiūto**=(frecuentativo de adiuvo) transitivo: ayudar, asistir, aliviar. **Adiuvo** -iüivi -ütum tr.: ayudar, secundar, contribuir.

Hori izango litzake, nere uste apalian, berba honen jatorrizko zentzua eta esanguria, hau da, hondatuta daguen erremintta bat konponketia: lehenengo gorittuaz, batzuetan ago barrixa egitteko kaltzairu pusketia erantsitta, gero galdiauaz, forjauaz, tiratuaz, zorrotzuaz..., azken fiñian lagunduaz, barrio be lana egitteko moduan egon dedin. Izan be, ebaleriaren ondorioxoz erreminttak —aizkorak, atxurak, laixak, ara- eta sarda-hortzak eta abar— moztu eta beste zenbaittetan amostu egitten dira, hau da, zorrotzasuna galtzen daue eta konponduko badira, berriz be agua etara biharra izaten daue (aizkoriari bakarrik), lehenengo mehetuaz, eta, ondoren, berriz zorrotzuaz. Larregi gastaitten diranian, atzera kaltzairaketia derrigorrezkua izaten da. Hortaz, gastautako erremintta bat konponketako hainbat operaziño egin bihar izaten dira, zorrozketia azkena izanik; eta aizkoriaren kasuan, esaterako, lan hori ezeben edozein langillek egitten, langintza horretan espezialistia zanak baiño.

Orain, berriz, gure herrixan euskeriaren aldeko talde bat sortu da eta taldiari **Aixotu** izena ifiñi xaue; beste ebalera bat emunaz izen zaharra berreskuratu daue. Bejondegixela!

Sortu dan taldiaren zeregiñari begira esan leike euskeriaren alde egitteko zorrotz jokatu biharko dogula, zorrotzasuna aplikauaz eta exigiuaz, baiña aurretik gaixa landuaz, gozauaz eta findduaz, bestela konpondu biharrian zart egin leikelako egoerriak, aitta Kandidok jasotako esaera zahar polit honek "**aixotu eta gero atxurra gaixotu**" esaten doskun moduan.

Suerterik onena **Aixotu** kidiai eta ia, ba, euskeriaren aje eta errenkura danak aixoketan lan politta egitten dozuen!

Eskerrak Brinkolako Agirrezabal [Aertzal] baserriko Jose M^º Anduezari, emundako argibide guztiengatik.

LEITZA-UREPEL (1056 m.)-MANDOEGI (1041 m.)-GOIZUETA / OTSAILAK 16

MENDI IRTEERA Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugan egingo da Aloña Mendik otsailerako antolatu duen mendi ibilaldia. Leitzako tren getokitik abiatuta, Leitzalarreko eremu ikusgarrian barneratuko dira, eta **Urepel** (1056 m.) eta **Mandoegi** (1041 m.) tontorretara igo ostean, Goizuetara jaitsiko dira. Guztira, 16 km.-ko ibilbidea (+900 m.-ko desnibela), 6 bat ordutan egiteko modukoa, zailtasunik gabea.

Izen ematea otsailaren 6tik 13ra egingo da, alonamendi.mendi@gmail.com helbidean, autobusa bete arte (40 plaza). Prezioa: 10€. Irteera goizeko 7etan, postetxeko autobus geltokian.

OÑATIKO MENDI MARTXAK

10. urteurrena ospatuko du aurten



> Irailaren 13an egingo da mendi ibilaldia, baina, aurrez, hilero ekitaldi bat egongo da, urtemuga borobila ospatzeko

2015ean egin zen aurreneko **Oñatiko Mendi Martxa** eta, berez, aurtengoak hamaikagarrena beharko luke, baina COVIDaren ondorioz 2020koa bertan behera geratu zenez, aurtengo hamargarrena izango da. Urteurren borobila.

Horregatik, hain zuzen ere, aurtengo edizioa berezia izatea nahi dute antolatzaileek. Mendi martxaren egunean bertan, irailaren 13an, izango omen da sorpresa edo ekitaldi berezirik —oraindik zehaztu gabe dauzkate—, baina iraila bitartean ere hainbat ekitaldi programatu dituzte, ondoko taulan ikus daitekeen moduan. Mendia ardatz duten saioak izango dira, baina mendizaletasunaz gain, beste balio eta hausnarketa-gai batzuk ere (euskara, aniztasun funtzionala, klima aldaketa...) sustatu eta jorrazteko baliatu nahi dituzte. Haurrei zuzendutako saio bat ere egongo da maiatzean.

IZEN-EMATEA UDABERIAN

Oñatiko 10. mendi martxak izango dituen ibilbideak zehazten ari dira antolatzaileak egunotan, eta lan horiek amaitu ostean irekiko dute izen-ematea, udaberriarekin batera, martxo-apirila artean. Ohi bezala, 'Kirolprobak' atarian eta Txokolateixan eman ahal izango da izena —1.200 plaza egongo dira—.

Antolatzaileak gustura daude Oñatiko Mendi Martxak izan duen bilakaerarekin. "Hamar urte hauetan ikasiz joan gara, eta parte hartzaileei bidaltzen diegun asetasun inkestako emaitzen arabera, balorazioa positiboa da, eta gu ere pozik gaude". -



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

EGITARAUA

- **MARTXOAK 3** / Santa Ana aretoa, 19:00
ENEKO ETA IKER POU
'Lau elementuen erronka' liburuaren aurkezpena
- **APIRILAK 9** / Kultur etxea, 19:00
FELIPE URIARTE
'Euskara-Xerpera', motxilan eramateko hiztegia.
Bideo emanaldia
- **MAIATZAK 24** / Kultur etxea, 11:00
MARIA LONBILLO ETA RAKEL GARTZIA
'Piripuinak, ipuinak eta ibilbideak' liburuaren aurkezpena
- **EKAINAK 12** / Kultur etxea, 19:00
MIKEL LIZARRALDE
'Kontakizun bat tontorrez tontor' dokumentala
(Euskarazko film onena Mendifilm-2024 jaialdian)
- **IRAILAK 10** / Kultur etxea, 19:00
EÑAUT IZAGIRRE
'Piriniotako glaziarrek galzorian' hitzaldia
- **IRAILAK 13**
X. OÑATIKO MENDI MARTXA

Pou anaien emanaldirako sarrera (dohainik) eskuratu beharko da

Iker eta Eneko Pou anaiek martxoaren 3an eskainiko duten emanaldia dohainik izango da, beste guztiak bezalaxe, baina aforo mugarekin sor litezkeen balizko arazoak ekiditeko, aurrez sarrera eskuratu beharko da Txokolateixan. 'Lau elementuen erronka' proiektuaren baitan, azken urteotan osatu dituzten eskalada eta abentura sinesgaitzak aurkeztuko dituzte Poutarrek.



Txokolateixan eskuratu ahal izango dira sarrerak, dohainik



Binakako Urrezko Aizkora txapelketa Oñatin

> Finalerdietako bat jokatu da otsailaren 23an

Txikia-Rekondo eta **Atutxa-Otaño**, nor baino nor gehiago. Horiek dira otsailaren 23an Oñatin jokatu den XXV. Binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdian ariko diren bi bikoteak. Goi mailako aizkolaria lauak. Ohi bezala, modalitate ezberdinetan jardun beharko dute eta lan guztiak burutzeko denbora gutxien behar duen bikotea sailkatuko da final handirako.

Binakako txapelketa nagusiaz gain, 23 eta 21 urtez beherako banakako txapelketako saioak ere jokatu dira Oñatin, gizonezko zein emakumezkoetan, eta harri-jasotzaileen txapelketarako saio puntuagarriak ere bai. Bete-beteko saioa, beraz.

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaialdia, Foruen plazan, eguraldiak laguntzen badu, bestela kiroldegian. Bi orduko saioa izango da eta ETBK eskainiko du zuzenean. Sarrera dohainik da.

ANE MERTZERIT

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI



Senior neskek igoera fasera

ESKUBALOIA. Iñaki Zabartek zuzentzen duen senior mailako Construcciones Ugarte-Aloña Mendi taldea bigarren sailkatu da Gipuzkoako ligan eta, horrenbestez, eta Euskal Ligarako fasean ariko da orain, 8 talderen arteko ligan. Txapelketa zuzenean igoko da eta bigarren sailkatuak hiruko finala jokatu du Bizkaiko 2.a eta Euskal Ligako azken-hirugarrenaren aurka.



Senior mutilak igoera fasera

SASKIBALOIA. Aitor Ugartek gidatzen duen Biotz-Aloña Mendi taldea Euskal Ligarako igoera fasea jokatzeke sailkatu da, 1. maila probintzialeko liga erregularra 3. postuan amaitu osten. Orain, 8 talderen arteko beste liga bat jokatu beharko dute. Lehen faseko aurkarien kontrako emaitzak ere kontuan hartuko dira eta, beraz, ez dute lan erraza izango.

Domina ugari lortu dituzte Aloña Mendiko igerilariak neguko Gipuzkoako txapelketan

IGERIKETA. Maila oso onean aritu ziren Aloña Mendiko igerilariak otsailaren 1-2an Bergaran jokatu den Neguko Gipuzkoako Txapelketan. **Aimar Urzelaik** kolore banako 3 domina kolokoratu zituen Bizkar estiloko 50, 100 eta 200 metroetan, **Kepa Aldekoak** beste 3 domina lortu zituen 50-100 Bizkar eta 50 Tximeletan, **Alixe Ojeak** bi domina 100 Tximeleta eta 400 Estiloetan, **Oier Osa** azkarrena izan zen 1500 libreetan, eta **Irati Pelayo**, **Sara Txintxurreta** eta **Mattin Garai** ere podiumera igo ziren. Gainera, estilo libreko 4x200 errelebo proban Aloña Mendiko taldea —Mattin Garai, Urko Gorostiaga, Oier Osa eta Kepa Aldekoa— 3. sailkatu zen maila absolutuan. Bestalde, Andoaingo neguko sarian **Mikel Orueta** 3. sailkatu zen 100 Bizkarrean.



Bergaran lehiatu ziren Aloña Mendiko igerilariak



Kros festa San Martinen

Aloña Mendiko Atletismo sailak antolatuta, eskolarte mailako San Martingo lehen krosa jokatu zen urtarrilaren 26an. Lehenago ere egin izan dituzte kros lasterketak San Martingo zuhaitzian, baina herri mailan, eta aurtengoa federazioaren egutegian sartu dute aurrenekoz. Gipuzkoako klub ezberdinetako 130 bat neska-mutikok parte hartu zuten, eta emaitzei dagokierenez, Infantil mailan Eñaut Arriaranek lortutako 3. postua nabarmendu behar da. Itziar Murgiondok ere bikain aritu zen baina 4. postuarekin konformatu behar izan zuen.

'USAINDU LURRA'

> Musika bandaren denboraldiko hirugarren kontzertuan mendiak eta natura izango dira protagonista

Otsailaren 16an, Zubikoa pilotalekuan (13:00). Sarrera dohainik (gonbidapena eskuratu behar da Txokolateixan)


Otsailaren 16an musika bandak eskainiko duen kontzertuan mendiak izango dira protagonista. *Everest*, *Terra Vulcania* eta *Mont Blanc* bezalako obrak entzuteko aukera izango dugu. Obra programatikoak dira, deskriptiboak, eta naturan gertatzen diren fenomeno edo gertakariak (haize efektuak, elurra, ekaitza...) irudikatzen dituzte musikaren bitartez. Gainera, estilo ezberdinak (latindarra, pop...) eskainiko dizkigute *Ritmos de latierra* eta *Ain't no mountain high enough* bezalako piezetan. Kontzertu polita, beraz, erraz entzuteko modukoa, lurra eta naturarekin bat egitera eramango gaituena.

ESTREINALDIA

Kontzertu honetan Aner Agiriano tronpeta-jole gaztea estreinatuko da bandako kide bezala. Zubikoa pilotalekuan izango da emanaldia (13:00). Sarrera dohainik da, baina gonbidapena eskuratu behar da Txokolateixan. Aurretik (11:00), kalejira egingo du musika bandak herriko kaleetan zehar.



Aner Agiriano



EGITARAUA

- **Mont Blanc** (O.M. Schwarz)
- **Tierra Vulcania** (O.M. Schwarz)
- **Tirnos de la tierra** (V. Valencia)
 - Danzón
 - Pajarillo
- **Tellow mountain** (J. de Haan)
- **Mt. Everest** (R. Galante)
- **Mountain moments** (L.C. Neves serra)
- **Ain't no mountain high enough** (Arr. J. Bocook)



Rüdiger eta **Madame Birrots**, Burrunda faktoriaren eskutik



Madame Birrots taldea

Otsailaren 16an **Rüdiger** eta **Madame Birrots** taldeen musikaz gozatzeko aukera izango dugu (Antixena gaztetxean, 18:00) Burrunda faktoriaren eskutik.

Felix Buff-ek sortutako taldea da **Rüdiger**. Willis Drummond, Atom Rhumba, Joseba Irazoki edota Rafa Ruedarekin batera aritu ostean, bere proiektua abian jartzea erabaki du, eta *Before it's vanished* izeneko lehen diskoa aurkeztuko du Oñatin.

Madame Birrots Baztanen (Nafarroa) sortutako taldea da. Musika beraien bizitzaren erdigunera ekartzea erabaki duten bost emakumek (Kattalin Ezkerra -ahotsa eta pandereta-, Izargi Zumarraga -gitarra elektrikoa-, Alazne Untxalo -bateria-, Uhaina Apezetxe -gitarra akustikoa- eta Eneritz Mitxelena -txeloa-) osatzen dute taldea eta pop, rock eta folk estiloak jorratzen dituzte.

FANZINEA

Burrundaraka fanzinearen 4.zenbakia ere argitaratu du jada Burrunda faktoriak, hurrengo kontzertuetako protagonistei buruzko informazioarekin, eta beste hainbat gomendio eta informazio interesgarriekin.

Catalana Occidente

Mikel Egafia Urrutia
Asesurua

Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Eteebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrekia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motan 5, beheak
688 16 79 84
mikel.egafia@agencias.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Ultzezin kalea, 3 - Behea B / 652 710 837



'Babak eltzetik ateratzen'

Helduentzako ipuin kontaketa, Ixabel Agirresaroberen eskutik, otsailaren 12an

Udal liburutegiak antolatuta, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari eta aktore usurbildarraren 'Babak eltzetik ateratzen' kontakizunaz gozatzeko aukera izango dugu otsailaren 12an, zine aretoan (19:00). Helduei zuzendutako ipuin kontaketa saioa da eta emakumeen pasadizoak eta estutasunak ditu oinarri. "Ipuin hauetako emakumeak hamaika estutasun pasatakoak dira eta badute zer kontatua. Badute hitza, erabakitze eskubidea eta adarra jotzekoa ere bai", dio Agirresarobek.

HAURRENTZAKO IPUIN KONTAKETA SAIOA

Haurrei zuzendutako 'Ostegun kontalariak' saioan ere Ixabel Agirresarobe izango da protagonista, otsailaren 27an (Haur liburutegian, 18:00). LH1-etik gorako gaztetxoei zuzenduriko 'Goizean porru salda, eguerdian azak' istorioa kontatuko du. "Ba omen zen gazte bat, mundua ezagutzeko gogoz zebilena. Hamaika bazter ezagutu zituela zioen, bai eta hamaika sukalde kontu ere. Tripa zorriak dantzan izan badituzu inoiz, jakingo duzu zertaz ari garen". Gonbidapenak, otsailaren 17tik aurrera.

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUB FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SOKALDEAK, KOMONAK eta ASKOZ GERTAGO

CLASUA 12 B-4 nek. 20069 ENDEI GUPITXOIA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Bost Goya sari irabazteko hautagaien artean dago *Marco* filma

Otsailaren 8an Granadan emango diren Goya sarietarako bost izendapen jaso ditu Aitor Arregi eta Moriartitarren **Marco** filmak. Zehazki, 'Zuzendaritza onena', 'Jatorrizko gidoi onena', 'Gizonezko aktore protagonistan onena', 'Efektu berezi onenak' eta 'Makillaje eta ile-apainketa onena' sariak irabazteko hautagaien artean dago.



Danbaka ere irabazi du *Malko*-k

Ur aparretan jarraitzen du **Malko** rock talde oñatiarrak. Gogoratu, abenduan *Gaztea Maketa Lehiaketa* irabazi zuela eta, orain, Goiena Komunikazio Taldeak antolatzen duen *Danbaka* lehiaketako sari nagusia ere eskuratu dute. **Malko**-rekin batera, *Del Val* eta *Rebel Noise* arrasatearrek ere parte hartu zuten urtarrilaren 18ko finalean, Bergarako seminarixoan, baina oñatiarrentzat izan zen sari nagusia eta, horrenbestez, disko bat grabatzeko aukera. Maddi Arlanzon (ahotsa), Unai Izura (baxua), Ander Igartua (bateria), Iñigo Santa Cruz (gitarra) eta Anje Maiztegi (gitarra) dira **Malko**.

SUKENA BUELTAN

Denboratxo bat geldu egon ostean eskenatokitara itzuli da Sukena taldea, gogotsu itzuli ere, eta sei kontzertu iragarri dituzte hurrengo asteetarako. Aurrenekoa, otsailaren 15ean, Durangoko **40 Mintutu Rock** jaialdiaren baitan.

Iñaki Goitiaren lau mikroipuin argitaratu dituzte New Yorken

Mikroipuinak idazten artista da Iñaki Goitia Lucas, eta horren lekuko han-hemenka irabazi dituen sariak. Baina, oraingo honetan New Yorketik iritsi zaio aitortza, hango *Beletra Almanako* aldizkari entzutetsuak oñatiarraren lau ipuin argitaratu baititu, esperantora itzulita. Ustekabe handia bezain pozgarria izan dela aitortu du idazleak berak. Zorionak!



Iñaki Goitia, *Beletra Almanako* aldizkaria eskutan (Arg.: Barren aldizkaria)



Faxismoaren aurkako kantak

- > *Lee Kore* eta *Hoben* taldeek disko partekatua plazaratu dute
- > Eskuin muturraren gorakadari aurre egitea dute helburu

Lee Kore (Oñati) eta **Hoben** (Zumaia) hardcore taldeek *Antifa Hardcore* izeneko *split*-a (disko partekatua) plazaratu dute. Zazpi kanta biltzen dituen lana da; elkarrekin landu eta grabatutako hiru, gehi talde bakoitzaren beste bina abesti. "Zeozter desberdina egin nahi genuen, eta gure estilo bereko beste talde batekin disko bat partekatzeko aukera bururatu zitzaigun. Hala, aspaldiko lagunak ditugun *Hoben* zumaiarregana jo genuen eta, egia esan, oso esperientzia positiboa eta aberasgarria izan da".

Hardcore estilokoak dira kanta guztiak, tarteka metal ukitua ere baduten arren. Oñatiarren hiru kantuetako batean ('Zuen ordua



▲
Antifa Hardcore abestiaren bideoklipa ere plazaratu dute Zumaia eta Oñatiko taldeek

AURKEZPEN KONTZERTUA

Otsailaren 8an, Antixena Gaztetxean

LEE KORE (Oñati) eta HOBEN (Zumaia) taldeek plazaratu duten *Antifa Hardcore split* edo disko partekatua otsailaren 8an, larunbata, aurkeztuko dute jendaurrean, Antixena gaztetxean emango duten 'Antifa Fest' kontzertuan (22:00). Sarrera, 5€ (langabeak 3€).

iritsi da') *Rebel Noise* taldeko abeslari Aimar 'Iturri'k ere parte hartu. Bestalde, diskoa ixten duen kanta ('Amorru oihuak') KOP talde kataluniarraren abestiaren moldaketa da.

Zumaiaiko *Ozen* estudioan grabatu zuten diskoa abendu hasieran, eta urtarrilaren 23az geroztik entzungai dago ohiko plataforma digitaletan. CDa eskuratzeko aukera ere egongo da zuzeneko emanaldietan.

FAXISMOAREN AURKA

Musika egiteaz gain, diskoak helburu politiko bat ere baduela azaldu dute *Lee Kore* taldekoek. "Disko honek euskarri kulturala izan nahi du pentsamendu eta praktika erreazionarioen aurka kontzientzia hartu eta eragin nahi dutenentzat. Ildo horretan, disko hau mundu mailan gora egiten ari den faxismoaren eta eskuin muturraren aurkako lan bat da, testuek erakusten duten moduan", adierazi digute taldekoek.

Faxismoaren aurkako jarreraz gain, arrazakeria, materialismoa, emakumeen ahalduntzea eta Euskal Herriaren independentzia ere jorratzen dituzte kantetan.

Aitor Atxa (ahotsa), Pello Uriarte (gitarra), Aritz Iza (gitarra), Iñigo Blazkez (baxua) eta Beñat Elorzak (bateria) osatzen dute *Lee Kore*. 2018an sortu zen taldea eta hau hirugarren diskoa dute 'Gorrotoaren hazia erein da' (2019) eta 'Maitasuna eta Askatasuna'ren (2024) ondoren.

Irrizak daude lan berria jendaurrean erakusteko. Otsailaren 8an izango da, Antixena gaztetxean (22:00), eta animatu egin nahi dituzte herritarrak kontzertura hurbildu eta diskoa entzutera. ■

ETXiAN
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3
Telf.: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (II)

ARTASO (II)



Denpora bateko Gallerdiko trikuharraren arrastuak (Argk.: K. Zumalde)

Gallerdiko tumulua

✍ ROBERTO ALTUNA

Orduan Artaso, nere anima barruan, dolmena da, erromesen bidia da ... Erromesen bidia Arantzazurako be bai, Arabako erromesen parte haundi batena. XVII. gizaldixan ja Gamarrak eskribiu dau “y pasan, gutxi gorabehera, buruz, por el puerto que se llama Gallaur, que es contracción de gain-labur”, hori eztakit egixa izango ete dan. Dolmena eztau aittaketan, ez eben ezaguketan. Dolmen hori neuk topatakua da gaiñera. Eruan neben behin Juan San Martin eta “hau harri-pilla hau, zer da?” “Hori dolmena da”. Susmua aspaldittik neukan. “Eta beheko hori?” “Tumulua”. Nik, handik, distantzia batetik bistaraketan neben Arantzazu. Arantzazun egunero bizi nintzan. Egunero, egunero; egunero, egunero. Eta gauza batzuk egunero bizitten nittuan. Min batzuk. Oxigenaittera faten nintzan hara. Momentu bat libre egotera. Ikusle egotera, kanpotik.

*Artaso
lotan geldi
geratu zan
aspaldi
aurreko mendixan,
ta Arantzazu iratzarri
beste alderdixan.*

*Ta, bixen erdixan,
lehengo erreka bera
bere betiko doian
betiko abixan.*



Bitoriano Gandiaga

Euskadi bixak. Bat kristau aurrekua, Artaso; bestia ixixa Santutegixak sinbolizaitten dauen gaurkua. Bixak parez pare eta bixak bat egindda. Eta bixen erdixan erreka. Bizitza, bere betiko doian betiko abixan. Erreka hori justu Gallaurren sortzen da, Artasotik gora, goiko dolmenaren albu. “Gallaurtik behera / uren lasterra ...” Arantzazutik, Artason errefugiau gara.

*Hiru gizon bakarka. Bitoriano Gandiaga.
Joxe Azurmediren epilgotik hartuta eta moldautu.*

AGENDA

EKITALDI BEREZIAK

OTSAILAK 23 / 10:00

Zuhaitz Eguna

Zuhaitz landaketa egingo da herriko guneren batean. [Hitzordua herriko plazan](#)

OTSAILAK 27 / 17:00

Bingo berrezia + Txistorra jana

Ostegun-gizen eguneko bingo berrezia eta, ondoren txistorra+edari bat (2€), 18:30etan. [Pake Lekun](#)

MARTXOAK 1 / 09:00

ZUHAITZ FERIXIA

Mintegi ezberdinetako zuhaitz, landare eta haziak. [Herriko plazan](#)

ERAKUSKETAK

OTSAILAK 10 - MARTXOAK 2

'TXORIAK TXORI'

Natur Eskolak antolatuta [Kultur etxean](#) (egunero, 18:00-20:00).

HITZALDIAK

OTSAILAK 12 / 10:00

'Joan Perez Lazarragako (1547-1605), euskal literaturaren aitzindari'

Hizlaria: Gildor Bilbao, filologia klasikoan doktorea. Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana](#)

OTSAILAK 19 / 19:00

'Itsas ekosistema bentonikoa: funtsezko bioadierazlea!'

Hizlaria: Nahiara Muguerza, EHUko irakaslea eta *Itsas Bentos* ikerketa taldeko kidea. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 21 / 19:00

'Kaparrak, ziztatetik haratago'

Hizlaria: Aitor Cevitanes, albaitaria eta NEIKEReko ikerlaria. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 25 / 19:00

'Arrantza industrial: Getariako hegabur haztegien kasua'

Hizlaria: Lorea Flores, biologoa eta *Greenpeace*-ko Hego EHko koordinatzailea. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 26 / 10:00

'La transición española y el 23F'

Hizlaria: Pedro Barragán, memoria historikoan aditua. Esperientzien Gelak antolatuta. [Santa Ana](#)

'Itzulera', Dejabu-ren antzezlan berria

OTSAILAK 23, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00



Estreinatuta berri den *Dejabu* taldearen lan berria ikusteko aukera izango dugu otsailaren 23an. Komedia existenzial bat da. Konpainia bateko lankideak sormen krisian murgilduta daude eta Mexikora joango dira inspirazio bila. Ezusteko gertakari batek zeharo aldaturko du bidaiaren norabidea, beraien sormenaren eta identitatearen zentzua zalantzan jartzeraino. Sarrerak (10€) [www.oñati.eus](#) eta Txokolateixan.

'Mamut', haurrentzako antzezlan

OTSAILAK 16, SANTA ANA ANTZOKIA, 17:00



Markeliñe taldearen antzezlan berria da *Mamut*. Hiru pertsonaia hominido, otsoen mehatxutik babesten dira mamut baten hezurren ondoan. Bizirauteko borrokan, elkar ulertzea eta lankidetzan aritzea erabakitzen dute, ezberdintasunak alde batera utzita. Mamuta eta bere hezurak sormenerako tresna bihurtuko dira. Sarrerak (4€) [www.oñati.eus](#) eta Txokolateixan.

OTSAILAK 26 / 19:00

'Urdaibai: arriskuan dagoen Biosfera Erreserba. Zein da bere etorkizuna?'

Hizlaria: Eider Gotxi (*Guggenheim Urdaibai Stop* plataforma). [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 26 /

'Justizia euskararentzat'

Hizlariak: Intza Gurrutxaga eta Gorka Torre. *Aixotu*-k antolatuta. [Gaztetxean](#)

OTSAILAK 28 / 19:00

Silio herriko (Kantabria) maskarada

Oñatiko Inauterietako lantaldeak antolatuta. [Santa Ana antzokian](#)

IKASTAROAK

OTSAILAK 12 - MAIATZAK 14

ZIZELKATZE IKASTAROA ELTZIAN

Asteazkenetan 14:45-16:45 / 17:00-19:00. Izena ematea: [zizelkatu@gmail.com](#)

IRTEERAK

OTSAILAK 14 /

La Arboleda (Bizkaia)

Pake Lekuko 'Kultura eta Natura' programaren baitan.

OTSAILAK 22 / 9:30

Txoriak behatu eta entzuteru

Asier Sarasua eta Iker Novoa adituen eskutik. Izena emateko: [natureskola@yahoo.es](#). [Natur Eskolan](#)

JAIALDIAK

OTSAILAK 8 /

ARRANO EGUNA

09:00 Santa Marina plazatik Arrano-Aitz mendira oinez; 11:00 Arrano-Aitzen omenaldia gaurko eta atzko gudariei. Ondoren, salda eta txorizoa.

OTSAILAK 27 eta MARTXOAK 1-2

OÑATIKO INAUTERIA

Otsailaren 27an (15:00) 'Inauteri Txikia', Olaiturrin hasita. Martxoaren 1ean, Oñatiko Inauteria kalez-kale (11:00-13:30 eta 17:00-20:00). Martxoaren 2an, 'Bolant dantzak' Oñatz taldearen eskutik kalez-kale (18:00).

LITERATURA

URTARRILAK 23 / 19:00

'Babak eltzetik ateratzen'



Txotxongilo ikuskizuna

Otsailak 23, Gaztetxean, 17:00

Burrunda faktoriak antolatuta, Alaia Galtzagorriaren 'Mitoen bidaia' txotxongilo ikuskizuna ikusteko aukera egongo da otsailaren 23an, Antixena gaztetxean (17:00). Deabrutxo batek Zezengorrik zaintzen duen altxorra lapurtuko du, eta Alaia Galtzagorria, publikoaren laguntzarekin, Euskal Herriko tradizio eta mitoetan barrena abiatuko da lapurtutako altxorren bila. Sarrerak (5€) Mizken eta Txokolateixan salgai. Bi urte arteko haurrek ez dute ordaindu behar, baina sarrera eskuratu behar dute.

Helduentzako ipuin kontaketa saioa Ixabel Agirresaroberen eskutik. **Kultur etxean**

MUSIKA

OTSAILAK 8 / 22:00

Lee Kore + Hoben

'Antifa Fest-2', jaialdiaren baitan (5€, prezio murriztua 3€). **Antixena gaztetxean**

OTSAILAK 16 / 13:00

Oñatiko musika bandaren kontzertua

'Usaindu lurrak', denboraldiko hirugarren kontzertua. **Zubikoa pilotalekuan**

OTSAILAK 16 / 18:00

Rüdiger + Madame Birrots

Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrera: 8€ / murriztua 3€. **Antixena Gaztetxean**

OTSAILAK 22 / 19:00-22:00

'Azken Erromantikoak' pintxada

Fan Hemendik-ek antolatutako **Kanpora** jaialdiaren baitan binilo jartzaileren pintxada: 'Azken Erromantikoak'. Ostein kontzertuak (*Añube*, *The Lio* eta *Dirty Old Gasteiz*) Gaztelekuan (sarrerak agortuta). **Antixena Gaztetxean**

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Otsailak 6 - 11

ZINE KLUBA:

LA QUIMERA

NAGUSIAK:

SEPTIEMBRE 5

GAZTETXOAK:

AZERIK ETA

ERBIK BASOA

SALBATZEN DUTE



Otsailak 14 - 17

ZINE KLUBA:

MEMORIAS DE UN CARACOL

NAGUSIAK:

MIKAELA

GAZTETXOAK:

FINNICK: UN

MONSTRUO EN CADA CASA



Otsailak 20 - 24

ZINE KLUBA:

**ZINZINDU-
RRUNKARRATZ**

(Ingurumen jardunald.)

NAGUSIAK:

MARIA CALLAS

GAZTETXOAK:

LOS

EXPLORADORES



Otsailak 27 - martxoak 3

ZINE KLUBA:

EL MAL NO EXISTE

(Ingurumen jardunald.)

NAGUSIAK:

THE BRUTALIST

Pelikularen iraupena

(215 min.) dela eta,

19:30tako emanaldiak

soilik egongo dira asteburu osoan.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Otsailak 3, 4, 12, 13, 21, 22 eta 23.
Martxoak 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Otsailak 5, 6, 14, 15, 16, 24 eta 25.
Martxoak 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Otsailak 7, 8, 9, 17, 18, 26 eta 27.
Martxoak 7, 8 eta 9.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Otsailak 1, 2, 10, 11, 19, 20 eta 28.
Martxoak 1 eta 2.

ODOL ATERALDIA

OTSAILAK 21 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

DUPLEXA SALGAI

Oñatiko erdigunean dagoen duplex etxebizitza handi bat saltzen da. Garajea aukeran. Interesatuak deitu: 660 156 664.

GARAJEA

erosi edo alokatu nahi dut Errekalde edo Moiuia kale inguruetan. Deitu: 660 758 004.

APARTAMENTUA SALGAI

60 metro karratuko eta gela bateko apartamentua salgai. Interesatuak deitu: 618 721 129.

EROSI

Oñatiko fabriketan egindako produktu, katalogo, erreminta eta liburu zaharrak erosten dira. Deitu: 605 707 713.

ETXEBIZITZA SALGAI

Babes ofizialeko 3 logeladun etxebizitza salgai Ugarkalde auzoan. Deitu: 662 078 883.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



**Etxebizitza bat hornitzeke,
historio bat idazteke.**

amuebladoremondragoneda.com

C/ Zigarroa 5. Arrazate (Gipuzkoa)



amuebladoremondragoneda.com